

U.Z.E.I.

MENDEZ MENDE

**HISTORI
AGIRITEGIA**

ERDI AROA

fitxak

ELKAR

Hezkuntza Sailak onetsia 1988-1-7

© UZEI. Esterlines, 8. 20003 DONOSTIA
Tel. (943) 429838 - 429839

© ELKAR, S. A. Esterlines, 10. 20003 DONOSTIA
Tel. (943) 426319

Depósito Legal: NA. 1.606-1987
ISBN 84-7529-520-7

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L.
Tafallarako bidea, 1 Km. - Lizarra (Nafarroa)

Zuzendaritza

Joseba Intxausti

Koordinazioa

Jose R. Kortabitarte

Aholkularitza didaktikoa

Rafael López Atxurra

Itzulpenak

Joseba Intxausti
Fernando Mendizabal

Lankidetzak

María Jesus Aranburu
Pello Arrieta
Txema Elvira
Lourdes Herrasti
Karlos Kortabarría
Jesus Odriozola
Maiteder Uribe-Etxebarria
Rosa M. Virto

Argitalpen-moldaketa

U.Z.E.I.

AURKIBIDEA

- HA 3:001 Enperadorearekiko mistika (284-305)
- HA 3:002 Inperio Erromatarraren eta laborantzaren krisiak (III/IV. mend.)
- HA 3:003 Herri erromatarraren antigermanismoa (IV. mend.)
- HA 3:004 Munduaren azkena ote? (c. 340-497)
- HA 3:005 Jendea hirietatik landetara, Europan (IV. mend.)
- HA 3:006 Kristauen kontrako pertsegizioak (I-IV. mend.)
- HA 3:007 Konstantino eta Kristautasuna (312/337)
- HA 3:008 Kristau-herriaren egoera sozial berria (IV. mend.)
- HA 3:023 Barbaroak Inperio-barnera (III. mend.)
- HA 3:024 Barbaroen eraso (c. 340/420)
- HA 3:025 Teodoriko, ostrogotuen erregea (487/526)
- HA 3:026 Rekaredo-ren konbertsioa (587)
- HA 3:033 Nolakoa zen Bizantzio? (X. mend.)
- HA 3:034 Eliza, Enperadoregoaren gainetik (494)
- HA 3:035 Bizantzioko gizartea (V/XV. mend.)
- HA 3:036 Urrea eta Konstantinopoliko moneta (VII-VIII. mend.)
- HA 3:041 Islam-aren oinarriak (VII. mend.)
- HA 3:042 Konkista islamdarren arrazoiak (VII-VIII. mend.)
- HA 3:043 Inperio musulmaneko klase sozialak (VII-VIII. mend.)
- HA 3:044 Musulmanen merkatalgaiak (X/XI. mend.)
- HA 3:045 Zientziak eta arabiarra (VIII/XI. mend.)
- HA 3:051 "Erdi Aroa": azken aroa ote? (X/XIII. mend.)
- HA 3:052 Goiz Erdi Aroko demografia Europan (V/XI. mend.)
- HA 3:053 Erdi Aroko goseteak (582)(793)(843)(942)(1005)
- HA 3:054 Gizarte estamentala (998)
- HA 3:055 Karlomagnoren boterea (868/814)
- HA 3:056 Gurutzadarako deia (1095)
- HA 3:057 Elizaren botereak, Aita Santuaren arabera (1245)
- HA 3:058 Zer dira erregeak? (1256)
- HA 3:059 Gutun Bikaina (1215)
- HA 3:060 Ondare handien autarkia (VIII/X. mend.)

- HA 3:061 "Latifundia"etako produkzioa (VIII/X. mend.)
- HA 3:062 "Jacquerie" (1358)
- HA 3:063 Zistertarren zabalkundea (XII. mend.)
- HA 3:064 Abatetxeak, lantegi (IX. mend.)
- HA 3:065 Kolonuen hamarrenak (VII-X. mend.)
- HA 3:066 Europako azoka berrien jaiotza (IX/X. mend.)
- HA 3:067 Zer zen burgu bat? (X. mend.)
- HA 3:068 Pariseko artile-artisauak (1261-1270)
- HA 3:069 Inportazioak (XII/XIII. mend.)
- HA 3:070 Heretikoen aurkako pertsegizioa (XIII. mend.)
- HA 3:071 Izurrite Beltza Florentzian (1348-1350)
- HA 3:072 Erdi Aroko Ernazimentuak, historiaren arabera
(VIII/XVI. mend.)
- HA 3:073 Unibertsitateak, Partidetan (1256/1265)
- HA 3:074 Erromanikoa: Arte landatarra?
Gotikoa: Arte hiritarra?

KULTURA
POLITIKA

270-275

Pasarte honetan historilariak, Enperadorearekiko mistikaren garrantzia deskribatzen du; ideologia politiko-erlijioso honen arabera, Jainkoen exenplua segituz eta imitatuz gobernatzen dute Enperadoreek Inperioa.

"Aurelian-ek 'Deus et Dominus natus' deitzen zuen bere burua, hau da, 'Jainko eta Jain sortua'. Tetrarkia-ko enperadoreak, beren inbestidura-egunean ('Dies natalis') jainkotasunera jaio eta jainkoen ume bihurtzen dira, eta horien graziak inspiratzen ditu.

Jainkozko grazia honek ematen diskie, tetrarken arteko harmonia, eta Inperioko gogo-batasuna eta zoriona bermatzen dituzten bertute bereziak; izadiko harmoniaren parte bat da hori. Enperadoreek Jupiter eta Herkule-ren exenpluaren arabera gobernatzen eta defendatzen dute Inperioa: Jainkoek egiten dutenaren imitazioa da.

Ideologia hau, hizlarien propagandaren, konstituzioen aitzinso-las eta abarren bidez zabaltzen da. Eragin psikologiko bat da, Estatu-makinaren hertsatzaile hutsa, bi halako egiten duena eta menpekoen jarrera politikoa burubide moraletan eta, azken buruan, jarrera erlijiosotan aldatzen duena". (R. REMONDON, 1979)

Roger Rémondon historilari frantsesa (Ikas-Eskola Gorenekoa), Erromako Berant Inperioaz arduratu izan da batipat. Beronen "La crise de l'Empire Romain" obratik jasotzen dugu hemengo pasarte hau. Aldatu-min bizian datorren gure gizartearentzat ez du interes-faltarik Inperio haren krisiak.

"Historia/1" liburuan aurkituko dituzu zibilizazio erromatarren zehaztasunak (111-151. orrialdeetan).

EGJTEKOAK

- a) Entziklopedian kontsultatu ondoren, egizu "Erromatar Inperioaren krisialdi"aren laburpen orokorra.
- b) Aurelian Enperadorearen bizitzaz jaso datu batzuk.
- c) "Inbeztidura", "Jupiter", "Herkule" hitzen esanahia idatzi.
- d) Idatzi, zeure gisara, testuaren ideia nagusia.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein garaitan bizi izan zen Aurelian?
- b) Zer diotzen zaiu Tetrarkia?
- c) Enperadoreen "Jainkotasunak": Zer da hori? Zergatik darabil hitz hori testuak? Zein betekizun politiko izan dezake?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Mendebaldeko Inperio Erromatarraren krisiaren agerpide batzuk azter ditzakegu hemen historilariaren testu honetan. Azken unean, diotenez, gutziaren kausa kanpotiko faktore baten eragina izan bazen ere, egiaz, III. mendeaz geroztik, barnean desegite-prozesua hasita zegoen. Ekonomian, erakundeetan eta ideologian, orotara iritsi zen krisi gaindiezin hura.

"Oinarrizko produkzioaren krisia da batipat: laborantza eta meagintzarena. Baina honek berekin dakar industriaren krisia, lehen-gaiak falta zaiskio eta 'Urrezko eta zilarrezko meatzak ahitu egiten dira...', lurra ez da hain emankorra..., lurreko produktuak urritu egiten dira' (Ziprian: Demetrian-i).

Meatzek eta lurrak gutxiago produzitzen badute ez da agortu egin direlako edo klima aldatu delako, gutxiago lantzen direlako baizik. Eta hori horrela da, askotan zoritzarrekoa den lan-esku honen egongaitasun tradizionala larriagotu egiten delako, bai anarkia eta gerrengatik eta bai Estatuak gaineratzen diskion zereginengatik; zeren bates ere dagoena lan-esku falta da: 'Nekazariak gero eta gutxiago dira, eta falta egiten dute soroetan. Geroz eta gutxiago dira marinelak, gutxiago soldaduak kanpamentuetan' (ibid.). Urritasun horren kulpa esklabuek dute, segurtasun-falta hau beren burua askatzeko aprobetatxatsen bait dute, eta nekazari eta langile libreek ere bai 'gaistakerian eta arpilaritzan bisitsea aukeratzten dute eta'. Izurriteek, gerra zibilek nahiz atzerrikoek eta beren ondorioek sortutako demografi krisiak ere badu kulpa horretan.

Giza faktorearen krisi honek lurrak uztea dakar. Gero, labore-lurren hedadura murriztea eta produkzio-gutxitzea, eta gainera sail laboragarrien gutxitzea eta produkzioa urritzea: zeren jende-faltak kalte egiten dio lurrari eta instalazioen hondamena ekartzen du berekin".

(R. REMONDON, 1979)

Roger Rémondon historilari frantsesa (Ikas-Eskola Gorenekoa), Erromako Berant Inperioaz arduratu izan da batipat. Beronen "La crise de l'Empire Romain" obratik jasotzen dugu hemengo pasarte hau. Aldatu-min bizian datorren gure gizartearentzat ez du interes-faltarik Inperio haren krisiak.

"Historia/1" liburuko 138-153. orrialdeetan aurkituko duzu Inperio Erromatarren krisialdiari buruzko lehen informazioa. Erromako historia orokorragoa liburu bereko 110-124.etan daukazu.

EGJTEKOAK

- a) Mapa batean adieraz Inperio Erromatarren hedapen-aldiak. Zeintzuk dira berorren mugak?
- b) Geografikoki Inperio Erromatarrek lurralde zabala osatzen zuten: egungo mapa politiko batean aditzera eman garaj bateko Inperio Erromatarren barnean kokatuta gelditzen diren gaunko Estatuaren izenak.
- c) Nola zegoen antolatuta Inperioko sistema politikoa? Bila itzazu bina-
rrizko argibideak.
- d) Ardatz kronologiko batean Erromako historiaren une garrantzitsuenak eman.
- e) Azter itzazu kontzeptu hauek: "mare nostrum", "pax romana", "barbarus".
- f) Bila Ziprian-i buruz informazioa.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nolako krisia dela esaten du idazleak?
- b) Noren testigantza jasotzen du autoreak? Nolakoa da interpretazio hori? Zer eritzi ematen du historialariak? Zeintzu dira krisiaren arrazoiak, diobenaren arabera?
- c) Zertan oinarritu zen Inperio Erromatarren goraldia? Nola eratu zen haren produkzio-sistema ekonomikoa?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Sinesio gotzainak idatziriko testu honetan garbiro ikus daiteke Inperio Erromatar handi hartan bizi zuten kontraesan larria: Alde batetik, bidezkoa zen bezala, erromatarrek beren munduaren "esentzia" zaindu nahi zuten, hori zen helburu politiko bat; bestetik, garai-giro haietan ezin burutua zen xedea, izan ere Inperioan sar-berriak ziren ilegorri ezjakin haien eskuetan geratzen ari bait ziren indar sozial gidariak.

"Ezer gutxi beharko da armadek boterea eskuratzeko (...), eta orduan zer egin ahal izango dute zibilek gerragintzan zailduagoak dauden gizonen kontra? (...) Senatore titulua ohore guztien gaina zen Antzinatean erromatarren begietan, orain berriz, barbaro horiek direla eta, zerbait nardagarri bilakatu da.

Bizitza pribatuan morrontzan erabiltzen diren barbaro ilegorri berberak ari zaizkigu bizitza publikoan ordenak ematen... Gu babesten gaituzten armadetako gizonak gure esklabuen arraza berekoak dira.

(Teodosio-k), onberatasun handiegiz, gozoro eta bihotz-bigun tratatu ditu, aliatu-titulua eman die, eskubide politikoak eta ohoreak emakidatu dizkie eta eskuzabal lurra dohaindu dizkie. Baina horiek ez dute ulertu, ez preziatu, trataera horren bihotz-sabaltasuna, gure aldetikako ahulune bat bezala ikusi dute, eta honek harropustu egin ditu eta inoiz ezagutu ez den bezalako herronkazale bihurtu". (SINESIO Zirene-ko gotzainak, 399an)

Sinesio, hizlari, poeta eta filosofo greziarra, Tolemaida-ko gotzaina izan zen (c. 370-c. 415). Emakume kristau batekin ezkondu zen, eta beronen eraginez kristautu. Barbaroen etorrerak, bere hiru ume galtzeak eta bildu zituen etsaigo politikoez Tolemaida-ko erbestera eraman zuten; han, berriz, gotzain egin zuten gogoz kontra (411).

Pentsamolde hau bere testuinguru historikoan emateko, "Historia/1"-eko argibideak bila ditzakezu: ikus III. mendetik hasita marigora etorri zen krisiaz oharrak 143-150. eta 155-157. orrialdeetan.

EGITEKOAK

- a) Egizu, irakaslearen azalpenak lagun, Inperio Erromatarren egitura politikoen organigrama bat.
- b) Metodo bera aplikatuz, egizu 3. mendeko krisialdiaren eskema grafiko bat.
- c) Marraztu Inperioaren mapa politikoa (4. mendearen azkenetakoa); azter "Limes" inguruan kokatutako herri barbaroen inbasio-mugimenduak.
- d) Zer dakizu Inperio Erromatarren zatikatzeaz: Norik burutu zuen? Zergatik? Nola?
- e) Zer dakizu barbaro haien bizimodu, egitura politiko, erlijio, ekonomia eta ohiturez?

ERANTZUTEKOAK

- a) Barbaroen inbasioen ondorioz bakarrik gerta ote zitezkeen Inperioaren erorikoa? Ez ote da egongo beste faktorerik?
- b) Zergatik gertatu zitzairen ezinezkoa, barbaro nahiz erromatarrei, elkarrekin batera bizitzea?
- c) Positibizat ala negatibizat jotzen duzu barbaroen etorrera?
- d) Badirudi Sinesioek mespretxatu egiten zituela barbaro haiek. Zein arrazoi ematen du jarrera horren arrazoizkotasuna frogatzeko?
- e) Sinesioek esandakoa kontutuan harturik, zergatik dio senadore-titulua nardagarri bilakatu zela.
- f) Sinesio ados egon ote zitezkeen Teodosio enperadorearen erabaki politikoekin?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

c. 340-397

IV. mendean, garaiko izpiritu erneek (eta San Ambrosio horien artean zegoen, noski) sumatu zuten funtsezko aldakuntzaren bat ari zela gertatzen ofizialki kristautu-berria zen Inperio Erromatarrean: Zer ote zetorren? 396an, hain zuzen, hasi zituen Alariko-k eraso armatuak: lehenengo, Grezian eta gero Italian (401). Arrisku handien atari-atarian ote zeuden, galdetzen zuten pentsalariak. seinale haiek ikusita.

"Inor ez dago gu baino hobeto, munduaren askenak aspian harrapatuko gaituenok baino alegia, zerutar hitz horien egia testigatzeko. Zenbat gerra eta zenbat gerra-irrintzi ez gara etengabe jasaten ari!

Hunoak alanoen kontra altxatzen dira, hauek gotuen kontra, gotuak taifalen eta sarmaziarren kontra, eta oraindik gu Ilirian egon gara aberritik gotuek desterraturik, berauek ere desterraturik zeudela; baina ez da hau dena.

Nolakoa ez da basterretan nonnahi dagoen gosetea! Izurrite hau ez da idiena bakarrik, gizakiena eta animali mota gustiena ere bada, eta izan ere halako eran, zeren gerrarik ikusi ez dugunok ere, gerran ibili diren herriek hainbatekoxe jasa nozitu bait dugu. Gaixote hauek berriz soiltsen ari dira mundua, honen askenetan aurkitzen gara eta. Munduaren gaixoteak, ostera, gosea, izurria eta pertsegizioa dira". (S. ANBROSIO, c. 340-397)

San Ambrosio (340-397). Lehenik Inperioko gobernaria eta gero Milanoko artzapezpikua eta irakaslea izan zen. Ligurian erromatar gobernadore kargua izan zuen. Bere kristau-herriaren hezkuntzaz arduratu zen baitipat: predikuak, idazlanak, kantutegia, legeak, denetik prestatu zuen. Mendebaldeko Eliz Gurasoetako bat da, eta Eliz Doktorea, gainera.

"Historia/1" liburuan daukazu xehetasun batzuk, testu honen aro historikoa hobeki ulertzeko: ik. 151-153. orr. Elizaren lekua ulertzeko. Gizartearen eta erakundeen krisia, 143-150. orr.

EGJTEKOAK

- a) San Ambrosiok testu hau idaztean, zer ari da gertatzen Inperio Erromatarrean?
- b) Egizu San Ambrosioren biografia txiki bat.
- c) Zenbait herri historiko aipatzen da testuan: Zeintzuk dira, nongo eta noizkoak dira?
- d) Angi itzazu, eskema batean, gosetearen eta izurritearen arteko loturak. Bikote hau beste fenomeno batzuekin batera gertatu izan da historian zehar. Aipa dakizuna.
- e) San Ambrosiok "Munduaren azkenak...", "Munduaren gaixoteak..." diotenean, zein "mundu"ri buruz ari da? Egizu horren analisi historikoa.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeintzuk dira 4. mendeko gerra garrantzitsuenak?
- b) San Ambrosio bezalako eliz-gizonek zekiten ("inork baino hobeto") munduaren bukaera gertu zegoela. Zergatik zioten hori?
- c) Ez zen mundua bukatu, uste zuten bezala; aitzitik, kristautasunarentzat hedapen-garai berria etorri zen. Zergatik?
- d) San Ambrosiok gorabehera handiak izan zituen Teodosio Enperadorearekin (390). Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

IV. mend.

Inperio Erromatarraren krisialdiarekin hirietako egoera ere aldatuz zihoan. Garai honetan, IV. mendean, hirietako jende aberatsa landaldeko bere sail eta egoitzetara aldegiten hasi zen, aldiberean hiri hauen egoera ekonomiko kaskarra txartuz. Hiriak hustutzen ari ziren.

"IV. mendean arrabaletan jartzen ziren zirkuak, hilerriak eta elizak. Merovingiarren eta karolingiarren garaian jendeztuta jarraitzen zuten horiek, monastegi eta eliza berri mordo izugarri baten sorrerak aditzera ematen duenez. R. Etienne-k proposatutako ebaluazioaren arabera, Bordalek 15.000 biztanle zituen murrubarruan IV. mendean; baina murrus kanpo eta murruari atzekita Saint-Seurin-eko arrabal jendetsuak 1.000 biztanle biltzen zituen bere altzoan.

Jakina denez, hiriek beren gotorreraikinetatik barrualdera egiten zutelako ustea kontuz hartu beharra bait dago (izan ere, horretarako sarritan trikiegia bait zen barmeko barruti hori), Behe-Inperioko Galiako bi hiri ertainentzat aurreratu diren zifrek uste erazten digute, ezen garai horretan hiri ertainetako populazioa hamar milako bat edo batzutakoa zela biztanlez.

IV. mendean, populazio horren zati bat, aberatsena, landa-aldera joan zen, bertako luxuzko egoitza gotortu izugarrien truke hirietako zirku, teatro eta termak abandonatuz. Baina joan, beren buruaren defentsa antola zezaketenak bakarrik joan ziren hara, landetan ez zegoen defentsa onik eta. Klase aberatsen irteerak handiagotu egin zuen hirietako motelaldi ekonomikoa, baina ez zituen hiriak jendez hustu, eta haiek utzitako eraikin aberats-dotoreak trikizioak eta arpilaketak jo bazituen, hiritarren beren kausaz izan zen".

(R. DOEHAERD, 1984)

Renée Doehaerd, historilaria belgiarra da, eta Bruselako Unibertsitatean irakaslea izan da. Lehen Erdi Aroko ekonomiaren historiaz arduratu da bereziki, eta aro hartaz ikuspegi honetatik begiratuta egindako liburu eroso bat eskaini digu: "Le Haut Moyen Age occidental: économies et sociétés" (Parise. Gaztelaniaz: Labor, Barcelona).

Erromaren krisialdiari buruz, "Historia/1" liburuan aurki litezke oinarrizko argibide batzuk: 138-150. orr. Entziklopedietan eta historia orokor zabalagotan ere bila ditzakezu albiste osagarriak.

EGJTEKOAK

- a) Inperio Erromatarren mapa batean hiririk garrantzitsuenak koka.
- b) Inperioaren krisiaren eta erorikoaren kronologia bat egizu ardatz batean.
- c) Egin mapa bat, 4. mendean mugetan erasoka zeuden herri barbaroen herrialdeak adieraziz.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Beti esan ohi da Inperio Erromatarra bizitza hiritarrean oinarritzen zela. Hau horrela izanik, nolako ondorioa izan zezakeen hirien galenak?
- b) Zergatik aldegin zuten hirietatik aberatsek? Ez al zieten hiriek defentsa-aukera egokiagoa eskaintzen? Zein motatako ondorioak ekar zitzakeen egoera honek ekonomian, politikan eta abarretan?
- c) Dena den, testuak dienez, hiriak ez ziren erabat hustu. Zein jende-mota gelditu zen hirietan? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

II-III. mend.

Inperio Erromatarrek III. mendean jasan zuen krisialdiak bizitzako arlo guztiak ukitu zituen eta, ondorioz, erlijioa ere bai. Kristauen kontrako pertsegizioak, juduen aurka egindakoen segida ziren, nolabait. Estatuaren ahulezia areagotu ahala, pertsegizioak gogortuz joan ziren; baina horiek berek, azken finean, kristautasunaren hedakuntza erraztu egin zuten.

"Zentzu hertsian, ez Neronek kristauntsat zuen jarrera gogorra (despota baten kapritxoa), eta ez Trajano-ren agiria (bestalde guztiz tolerantea bait zen hura) eman daitezke 'legezko neurritzat'. III. mendean aldatu egingo da egoera, nahiz eta tolerantzi garaiak eta pertsegizio-garaiak txandaka aurrera jarraitu.

III. mendearen erdialdera eta Dezio-ren gobernupean, esan daiteke pertsegizio erradikala zela hura, eta Elizaren eta Estatuaren arteko bateraezintasuna markatzea bilatzen zuela... Geroago Valerian-ek Inperioaren bizitzarako momentu dramatikoetan barbaroek Inperioari presio itogarria egiten ari zitzaizkionean eman zituen neurriak (...), eta Dioklezian-en gobernupean asmo gutiz sistematikoz eratu ziren pertsegizioak, enperadoreari planteatu zitzaion dilemaren fruitu besterik ez ziren: 'Kristautasuna erabat hondatu, edota Estatuak hura beretzakotu'. (E. MITRE, 1980)

Emilio Mitre irakaslea erlijioen historiaz eta kristautasunaren heresiaz arduratu da bereziki: Istmo argitaletxean eman ditu bere dibulgazio-lanak. Testuinguru horretan, ba, hemen ere erlijio-gatazkei dagokien puntu bat du, guk lanerako aukeratu dioguna.

Gai honi buruz zehaztasun gehiago "Historia/1" liburuan aurkituko dugu: 123-124 (Inperioa), 141-150. (Erorikoa), 151-513. (Kristautasuna), eta 156. orrialdetan (Inbasioak).

EGJTEKOAK

- a) Atlas historiko bat kontsultatuz, egizu Kristoren jaiotze-garaiari dagokion Israelen mapa politikoa.
- b) Europa, Asia eta Afrikaren mapak marraz, eta eman aditzera lehen bost mendeetan Kristautasunak zuen hedapen geografikoa.
- c) Lor ezazu Biblia bat, eta saia zaitez beraren balio kultural eta erlijiosoa jabetzen. Inakur irakasleak esandako pasarte batzuk. Egin iruzkinen bat.
- d) Kristauren kontrako pertsegizioei buruz, bila albisteak. Filmeak ere badaude gai horretaz: ea ikusteko aukerarik duzun?
- e) Bila ezazu Katakunben argazki bat: zentarako eta nolakoak ziren? Eman lagunei Katakunben berri.

ERANTZUTEKOAK

- a) Kristauren kontrako pertsegizioetan nolako jarrera desberdinak agertzen dituzte enperadoreek? Noiz izan zen pertsegizioa gogorrena?
- b) Noiz hasi ziren kristauekiko "legezko neurriak"? Zer esan nahi zen "legezko neurriak" horrekin?
- c) Zein da Dioklezian-ek kristauekiko zuen dilema? Zein oinarri zuen dilema horrek?
- d) Barbaroak aipatzen dira: noiztandik eta non hasi zen herri horien presioa?
- e) Zer egin nahi ote zuen Nazaret-eko Jesusek: Sinagoga erreformatu, ala Eliza berri bat sortu? Eman erantzunaren arrazoiak.
- f) Gaur egun bai al dago kristauren kontrako pertsegiziorik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Kristauak indartuz zihoazen neurrian, Erromako Enperadoreek etsaitzat hartu zituzten. Pertsegizioak Konstantinorekin bukatu ziren, 313an erlijio-askatasuna onartu zuenean. Gero erraztasunak eman zizkion maila guztietan, eta berak pertsonalki parte hartu zuen Elizaren arazoetan. Konstantinoren gero Elizaren egoera sozio-politikoak guztiz bestelakoa izan da, Aro Garaikiderarte.

"Konstantinok ez du jentiltasun ofizialik hausten --jentiltasunaren eta Estatuaren arteko bananketa ez da 379rarte egiten: 'pontifex maximus' izaten jarraitzen du, tradiziozko jentil-erritoen arabera fundatzen du Konstantinopoli eta bakean uzten ditu tenpluak, eta berriak jaso ere egiten ditu. Jentiltasunari buruz emandako haren xedapenek hori xahutzea eta purifikatzea besterik ez dute bilatzen.

Kristautasunik ez du hark inposatzen: libre uzten du, eta kristautasunaren dinamismoa kontutan hartuz gero, Inperioa konkistatzeko ziurtasuna ematen dio.

Kristautasunaren alde ere ez da espreski jartzen, egiten duena ez da besterik, kristauei min ematen diena legerian aldatu (zeli-batuari buruzko Augustoren legea kendu), legeak ematekoan kristauek Inperioan leku bat izateko moduan egin (igandea santutzeko legea eman zuen, egun hori jentilen festa-egunen pareko jarriz; elizetan deklarazio bat eginez, esklabuei askatasuna emateko bidea baimendu zuen; eta baimena eman zion Elizari legatuak jasotzeko).

Egiaz, gotzainen arbitraiari auzitegi zibilen epaiei hainbateko-re balioa aitortzeak gotzain-jurisdikzioa jartzen du martxan".

(R. REMONDON, 1979)

Roger Rémondon historilari frantsesa (Ikas-Eskola Gorenekoa), Erromako Berant Inperioaz arduratu izan da batipat. Beronen "La crise de l'Empire Romain" obratik jasotzen dugu hemengo pasarte hau. Aldatu-min biziari datorren gure gizartearentzat ez du interes-faltarik Inperio haren krisiak.

Agiri honi "Historia/1"ean aurki diezaiokezu bere testuinguru historikoa: ikus, ba, 149-153. orrialdeak, Konstantinorena ezagutu eta Erromaren krisian Kristautasunak izan zuen lekua aztertzeke.

EGJTEKOAK

- a) *Ikus Konstantinok Enperadore izateko eman zituen pausoak: egin historia labur bat.*
- b) *Nola esplikatzen da Konstantino kristau bihurtzea? Zein arazo izan zitzakeen, erlijiosoak nahiz politiko-sozialak? Egin krokis bat.*
- c) *Zeintzu arau eman zituen Kristautasunaren alde?*
- d) *Egizu krokis kronologiko bat 4. mendeko Enperadoreak eta beraien arazo politiko-erlijioso nagusienak adieraziz.*

ERANTZUTZEKOAK

- a) *Noren kontra borrokatu behar izan zuen Konstantinok Enperadore izateko?*
- b) *Zer gertatu zen hil zenean?*
- c) *Zein jarrera hartu zuten Erromako Enperadoreek kristautasunaren aurrean? Aipa izenak, eta zehaztu bakoitzaren jokabidea.*
- d) *Bila ezazu, entziklopediaren batean, kristautasunak ofizialtasuna noiz eta norekin lortu zuen.*

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

381-391

Milano-ko Ediktuaren ondoren (313), Erromak kristautasuna ofizialki aintzakotzat aitortzean, kristau-herriak bizi izan zuen egoera sozial berriari buruz ari da testu hau. Kristautasuna, erlijio estatal bihurtu zen orduan: eliz ministrariet, soldata fondo ofizialetatik jasotzen zuten, eta Gotzainak Estatuaren funtzionari bilakatu ziren. Jentilen hainbat ohitura sozio-erlijioso (jaiak, sineskizunak, etab.) kristautu egin zen.

"Erromak kristautasuna ofizialki aintzakotzat aitortzean, ondorio garrantzitsuenen artean handi-handika kontu daitezke, alde batetik, gizarte erromatarren hobekuntza moral nabarmena eta, bestetik, erromatartze-maila handiagoa mendebaldeko kristautasunean, zeinak bere sisteman zeremonial estatalaren parte handi bat sartu bait zuen, erromatar jantziak eta liturgian erabiliz, eta gainera erromatar organizazioaren ispiritu-puska handi bat ere bai, haren egitura hierarkikoa eta haren legezko prozeduren eta printzipioen arabera gobernatzeko modua...

Honela Eliza estatal egin zen kristautasuna, eliz ministrariet fondo ofizialetatik jasotzen bait zuten beren soldata; Gotzainak Estatuaren garrantzizko funtzionari izango dira eta Erromako Gotzainaren autoritatea geroz eta handiagoa egingo da...

Erljio berriak ez zituen jentil-ohitura eta -sineste primitiboak erabat bastertu, aitzitik hauek bereganatuak eta kristautuak izan ziren poliki-poliki... Jentilen politeismoak irtenbide berri bar aurkitu zuen santuenganako kultuan. Poseidon-Neptuno, nabigari eta marinelen babeslea kendu eta San Mikolas jarri zuten haren ordeztu santu zaindaritzat. Efesoko Diana jainkosaren kultuak ere baditu halako zenbait berezitasun, hau Maria Birjinaren kultuaren tankeratsuko egiten dutenak: Maria bera ere hiri hartan izan bait zen hasiera-hasieratik "Jainkoaren Ama" bezala ospatua. Erromatarren 'parentalia' (hildakoei eskainitako) festagunak dituen berezitasun tipikoak, present arki daitezke nolabait Santu Gustien eguneko festan ere".

(Tr. LING, 1972)

Erljioak ez dira, eskierki, sineskizun-sorta bat bezala bakarrik garatzen, antolamentu sozial batean gorputz hartu ohi dute gainera. Kristautasunak ere bere erakunde-giltzarriak ongi ondu zituen lehen mendeetan, eliz barne-bizitarako bederen. IV. mendean, bere erakundetasun hori gizarte osora ere eramatea lortu zuen, lehenengo tolerantzia lortuz (Konstantino) eta ofizialtasun zibila iritsiz gero (Teodosio).

Begira, lanerako, "Historia/1" liburuan Kristautasunari dagokiona: 151-153. orr., eta osagarri izan liteke 158, 186-187., 207., 223. orrialdeetakoa ere. Hau dena beste ikuspegi gaurkoago batetik begiratzen, ik. "Mendez Mendeko Aro Garaikidea", 199-201, 207-209. orr.

EGITEKOAK

- a) Mapa batean marraztu Erromako Inperioaren 313.eko mugak.
- b) Aipa itzazu erromatarren Jainko eta Jainkosa garrantzitsuenak, noren edo zeren babesleak ziren adieraziz.
- c) Esprika ezazu nola bizi ziren kristauak Erromako biztanle modura kristautasuna ofiziala izan baino lehenago. Non biltzen ziren?
- d) Esan Katakunbei buruz dakizuna. Zeintzuk dira gaur egunean bisitatzen diren Katakunbak?
- e) 313. urtetik aurrera kristauak "basilika" izeneko eraikinetan biltzen hasi ziren. Zergatik? Zer izan ziren ondunarte basilikak? Egizu basilika baten oinplanoa eta ebakidura.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Nori eman zuen Milanoko Ediktua? Noiz? Zeintzuk izan ziren Ediktu honen ondorio aipagarrienak?
- b) Zer esan nahi dute politeismo eta monoteismo kontzeptuek?
- c) Zeintzuk dira gaur egungo Erromako basilika ezagunenak?
- d) Esprika itzazu arte paleokristauren ezaugarri orokorrak, eskulturaren eta pinturaren ere. Aipa itzazu adibide batzuk. Zeintzuk izan ziren gehien erabilitako gaiak? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

II/IV. mend.

Historilari honen pasarte aukeratu hau, herri barbaroak eta Inperio Erromatarrek lehen harremanetan izandako jokabideaz ari da. Egitura politiko zaharrek migrazioetatiko herri berrietara nola molda, izan zen mende haietako arazoa.

"Barbaroak Inperio-barnean sartzeari herri hori egonkortzeko modu bat ere bada. Egon, Erromaren borondatearen kontra daude bertan; batzuk sar-eraso baten ondoren gelditutakoak dira, beste batzuk infiltratuak. Baina batez ere gustatzen zaielako daude han: Marko Aureliok berak ere instalatuta zuen jada zenbait prisoner.

Sar-eraso barbaroen moldeak ikusiz, estrategiarik egokiena zen, haiek beren bizi-egonlekuetatik urruntzea (Deziok eta Klaudiok erabili zuten hau gotuen kontra), edo baita haien aurrean hutsarteak sortzea ere, edota atzetik, erretagoardiatik, erasotzea edo barrualdera bultzatzea, beren bizi-egonlekuetatik ahalik urrunen eramanez (honela jokatu zen Probo Galian, franko eta alamanen kontra). Ondorioa, prisoner-masa handi bat da: gehienei bizia kentzen zaie, beste batzuk leku-egonkortu egiten dira, eta holakoak errautsitako lursailak berregiteko enplegatzen dira.

Honela sortzen da barbaroen arazoa, edo hobeto esan, gehienon jatorriaren arabera, arazo germanikoa.

Inperioaren kanpoko eta barneko zailtasunak samurragotzen edota gutxiagotzen ere hasten diren bezain azkar, alderantzika jartzen da krisiaren prozesua. Elkarrekiko okerraldien ondoren batabestearekiko hobealdiak etorri ohi dira. Arlo batean egiten zen hobe-kuntzak aurrerapenak sortzen zituen, arlo berean edo beste edozeinetan.

Orduan posible da Inperioaren indarberrikuntza biskortuko duen erreforma-lana egitea".

(R. REMONDON, 1979)

Roger Rémondon historilari frantsesa (Ikas-Eskola Gorenekoa), Erromako Berant Inperioaz arduratu izan da batipat. Beronen "La crise de l'Empire Romain" obratik jasotzen dugu hemengo pasarte hau. Aldatu-min biziari datorren gure gizartearentzat ez du interes-faltarik Inperio haren krisiak.

"Historia/1" liburuan aurki ditzakezu garai honi buruzko albiste orokorrak: begira 141-153. orr.

EGITEKOAK

- a) Erromako inperioari buruz egizkizu, adibidez, ondoko mapa hauek: 1) Lehenengoa, 2. mendeko egoera azalduz: limes-a eta herri barbaroen kokaguneak (eman geografia fisikoaren zenbait puntugune argigarri). 2) Bigarrena, 3. mendean bukatuak egoera aurreko faktore berberak marrazuz, 3) Hirugarrenean 5. mendeko egoera ahal den argien aurkez.
- b) Egin oharrak "Historia/1"eko lauki grafikoari, deritzozun gisan: 148. orr.

ERANTZUTEKOAK

- a) Testuaren ideia nagusia barbaroen estabilizazioa-dugu. Zer ulertzen da hitz horrekin, eta zer esaten digu testuak horretaz?
- b) Azal laburki barbaroen mugimenduen zergatiak.
- c) Erromako krisialdiari buruz informazioa eskura: jatorria, kronologia, zergatiak, etab.
- d) Bai al zuten barbaroek krisialdi horrekin zerikusirik? Arrazoiak eman.
- e) Krisi hau, 3. mendean baretu egin zela esan liteke: erreforma batzuk egiteko betarik ere eman zuen horrek. Nola gertatu zen hori?
- f) Inperio barmean bizi ziren barbaroek nola jokatu zuten: 1) 3. mendeko barealdian? 2) Eta 4-5. mendeetan?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Dokumentu historiko baten aurrean gaude: San Jeronimok bere "Kronika"n idatzirikoa da. Barbaroen erasoaldia azaltzen digu idazleak Galiako gertakariak azalduz. Herri erasotzaileen izenak ematen dizkigu eta eurak pasatutako lurretan uzten zuten egoera tamalgarria deskribatzen du.

*"Konta ezin ahalako eta uzutasun izugarrizko basa-taldeek hartu dute Galia osoa. Alpeen eta Pirinioen artean, Ozeanoaren eta Rhin-aren artean dagoen lurralde gustia errautsita utzi dute kua-
duek, bandaloek, sarmaziarrek, alanoek, gepiduek, heruluek, saroi-
nek, burgundiarrek, alamanek eta baita panoniarrek ere, "zeren
horietxen artean etorri bait da Asur ere" (Salmoak, 82,9).*

Maguntzia, behinola hiri prestua zena, arpilatua izan da, eta milaka gizaki izan dira bertan hilak. Antzeko zoria ikusi dute Worms, Reims, Amiens, Arras eta abarrek ere; Akitania errautsita izan da osotora. Hiri asko eta asko jendegabetuta dago, espata eta gosea direla medio. Frantziako Tolosa aurritua izan ez bada, bertako gotzain Exuperio-ri esker izan da. Hispania ikara batean dago, gainera datorcion heriotzaren aurrean. Ez noa gehiago kontatzen, balirudike desesperaturik nagoela Jainkoaren errukian eta".
(SAN JERONIMO, 340-420)

San Jeronimo (370-420), Mendebaldeko Elizaren Doktore handietako bat da. Kultura klasikoan oso jantzia zegoen, eta Bibliaren itzulpen latinoagatik gogoratu izan da batez ere: "Vulgata" deitu izan zaio itzulpen horri, eta Eliza latinoan bera izan da mende askotan itzulpen ofiziala. Horrezaz gain, bere garaiko gertakarien aurrean adi egon zen San Jeronimo, pasarte honek erakusten digunez: bere mendearen kronikaria ere izan zen.

"Historia/1" liburuan aurki ditzakezu Herri Germaniarrei buruzko zehaztasunak: begira 155-159. orrialdeak.

EGITEKOAK

- a) Testua irakurri ondoren, begira itzazu, hiztegian, ulertzen ez dituzun hitzak: laburtu dena, beren ideia orokorra emanez.
- b) Egin mapa bat, inbasioen ibilbideak adieraziz: seinala itzazu, margo ezberdinez, epealdiak eta bakoitzaren protagonistak. Nondik norakoak ongi eman.
- c) Beste mapa batean, margotu inbasioen ondoren sortutako Erresuma berriak.
- d) Testuan aipatzen diren herrien sorlekuak, ezaugarriak, etab. bila entziklopediaren batean.
- e) "Historia/1" liburuan, 155-156. orrialdeetan datorren informazioa jaso (gizarteari buruzkoa), eta idatz laburpena.
- f) Lekutu mapan, dokumentuan datozen hiriak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik erlazionatzen du barbaroen erasoaldia Salmvetan ageri den esaldiarekin (Salmoa 82,9).
- b) Zeintzuk dira herri barbaro garrantzitsuenak? Non kokatu ziren?
- c) Zeintzuk dira haien gizartearen ezaugarriak?
- d) Inbasioen kausak, zeintzuk izango lirateke?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

V/VI. mend.

Antzinako historilari baten pasartea dugu hau. Herri germaniar garrantzitsu bateko errege berri bat aurkezten digu: Teodoriko (455-526). Errege trebe eta bertutetsu bezala ageri da berau. Ordu-rako erromatarturiko herrien eta germaniar etorri-berrien arteko bizikidetasun sozial eta politikoaren ametsa sumatzen zaio Prokopiori.

"Aitortu beharra dago, enperadore handi baten bertute guztiekin gobernatu zituela bere menpekoak. Justizia egin zuen eta lege onak eman zituen. Bere albo-herrien inbasiotatik babestu zuen bere herrialdea, eta zuhurtasun handia eta aparteko adorea erakutsi zien guztiei. Ez zuen bidegabekeriarik egin bere menpekoen kontra, eta besteri ere ez zion utzi injustiziarik egiten. Odoakrok behinola beretarren artean banatutako lurak gotuei beren artean banatzen utzi zienean ezik.

Baiki, Teodorikok errege-titulua besterik izan ez bazuen ere, ez zen Zesaren tronuan inoiz egon diren enperadore prestuenen aintza lortu gabe gelditu. Berdin maite zuten gotuek eta italiarrek; hau berriz ez da askotan gertatzen gizonen aurrean, hauek ez bait daukete ohituta Estatu-gobernuan norberaren interesekin bat ez datozen gauzak onartzera eta, aitzitik, bai ordea, norberaren kontra doan gauzia kondenatzera. Hogeitamaazpi urte gobernatzen aritu eta etsaientsat beldurgarri azaldu ondoren hil zen".

(PROKOPIO, c. 562: Historia Eskutua)

Prokopio, bizantziar historialaria izan zen (c. 490-562). Justinian-en garaiko historialaririk garrantzitsuena da. Honen "Historia Eskutua" ez-ohizko obra da, ematen dituen xehetasunengatik. Beste obratan zorrotza eta ezpartziala ageri da Prokopio; hemen jasotako zati honetan historia apologistaren hildotik doa.

Herri Germaniarrei buruz "Historia/1" liburuan, 154-157. orrialdeetan aurkituko duzu informazioa.

EGJTEKOAK

- a) Histori liburu eta hiztegi historiko batzuk kontsultatuz, bila ezazu termino eta izen propio hauen berri: Gotuak, bisigotuak, ostrogotuak; Teodoriko Handia eta Odoakro.
- b) Inperio Erromatarren eta Herri Germaniarren arteko erlazioa eta bila-kaera ikusteko, egin bi mapa: batean, Inperio Erromatarren egoera barbaroen erasoaldiaeren hasieran (5. mend.) deskribatuz; bestean, Euro-paren egoera 6. mendearen hasierako egoera emanez.
- c) Herri Germaniarrei buruzko informazioa bilatu ondoren, kontu herri baten historia, puntu hauek gogoan izanik: Jatorrizko sorlekua, iharduera ekonomiko nagusia eta bigarren mailakoa, famili bizitza, Estatu-idea, talde sozialak, janzkera, obra kultural eta estetikoak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nola deskribatzen du idazleak Teodoriko erregea?
- b) Gizonen jokaerari buruz, nolako kritika egiten du Prokopiok? Ados al zaude?
- c) Zesaren tronuari egiten zaio erreferentzia: Zer ulertzen duzu horrekin?
- d) Herri germaniarren artean, nola lortzen zer errege-titulua?
- e) Zein da herri germaniarrei buruzko zure eritzia? Berdina al da dokumentu hau aztertu aurretik eta ondoren?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Isidor Sevillakoaren testu honek Rekaredoren eta bisigotuen konbertsioaz dihardu. Harez gero, Penintsula Iberiarrean boterearen jabe ziren bisigotuak, lehendik kristaututako heretiko arriandarrak, bertoko Eliza katolikoaren erakundera bildu ziren. Konbertsio masibo honen bitartez gotuen monarkek Elizaren laguntza estimagarria bereganatu zuten, erabaki horrekin Hispaniako erresumaren batasuna sendotuz.

"DCXXIII. aroan, Maurizioren inperioaldiko hirugarren urtean, Leovigildo hil ondoren, honen seme Rekaredo izan zen erregetzat koroatua. Erlijioarentzako errespeto handiz jantzia zegoen eta ohituretan aita ez-bezalakoa zen oso, zeren aita erlijio gabea izan bait zen eta gustiz gerrazalea; hau, berriz, jaietsua zen fedear eta ospetsua bakeaz. Aitak bere nazioaren inperioa zabaltzen zuen, armak erabiliz; semeak loriatsuago handituko zuen inperio hori, fedearen garaikinarekin. Rekareko, bere erreinaldiaren hasieratik beretik konbertitu zen fede katolikora eta gotuen nazio osoa eraman zuen egiazko fedearen kultura, horrela bisiro sartua zegoen errore baten orbana ezabatuz. Jarraian gotsain-sinodo bat bildu zuen Espainiako eta Galiako probintzia ezberdinetatik, arriotarren heresia gaitzesteko. Kontzilio honetara printze txit erlijiosoa bera agertu zen, eta bere presentzia eta izenpearekin sendetsi zituen haren aktak. Beretar gustiekin ukatu zuen, ordurarte gotu-herriak Arrioren irakatsietatik ikasia zuen fedegaiztoa, aitortuz, Jainkoagan hiru pertsonako batasuna dagoela, Semea konstantzialki sortu duela Aitak, Ispiritu Santua Aita eta Semeagandik batera datorrela, hauek biok ispiritu bakarra baino ez dutela eta, ondorioz, bat besterik ez direla".

(ISIDORO Sevilla-koa, 636:
Gotu, bandalo eta sueboen historiak)

Isidor Sevillakoa, idazle eta Eliz doktorea da (c. 560-636). 633an Toledon ospatutako IV. Kontzilioaren buru izan zen eta Espainiako disziplina liturgikoa batu zuen. Garaiko ezagumenduen sintesi handi bat eman zuen "Etymologiae" deituriko obran. Erdi Aroan oinarritzko kontsulta-liburua izan zen hau.

Bila entziklopediaren batean "Rekaredo", "Toledoko Kontzilioak", "Bisigotuak" edo hemen egoki diren beste kontzeptu edo izenen argibideak. "Euskal Herriko Atlasa" liburuan begira. 59. orrialdeko mapan (goikoa) bisigotuen erasoak.

EGJTEKOAK

- a) Azaldu, mapa batean, gotuen erresumaren mugak; inguruetako herriekin izandako gerlak, hiriak, etab.
- b) Mapa berean koka gotuen arkitektur eraikinak. Zein komentario egingo zenioke, adibidez, Juan de Baños-eko elizatxoari?
- c) Itxuraz, euskaldunen eta bisigotuen arteko harremanak arazotsuak izan ziren: "Et domuit vascones" batekin bukatzen ziren sarritan errege bisigotuen kronikak. Zer esan nahi zuten zorioneko esaldi honekin?
- d) "Euskal Herriko Atlasa"tik egin bisigotuen erasoen ardatz kronologikoa.
- e) Sailkatu testuko pertsonai guztien izenak, eta horien datu biografikoak biltzen saia.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zer dio testu honek Rekaredoren eta beronen aitaren politikei buruz?
- b) Nolakoa da arrianimoaz Isidor Deunaren eritzia? Zergatik dio arrianismoa errore bat zela?
- c) Badirudi Leovigile-k, hiltzeko zorian zegoela, bere semeari katolizismoa onar zezala agindu ziola esan da. Zergatik eman ote zion horrelako aholkurik?
- d) Rekaredo erregea, fede hutsak bultzatuta konbertitu ote zen katolizismora? Bai al dago beste arrazoirik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

X-XIII. mend.

Inperio Bizantiarrak Konstantinopoli-n du hiriburu. Dударik gabe, Ekialde osoko hiri garrantzitsuenetariko bat izan zen (Bagdad-ekin batera). IV. mendean, Konstantinoren garaian, Inperio Erromatarraren Ekialde europarreko eta Ekialde Hurbileko hiriburu izateko fundatua izan zen, halako lekuan. Baina, arrazoi administratibo-politikotik aparte, bere kokaleku estrategikoa da aipagarriena. Hiri honi esker (bertatik gidatutako politika eta iharduera ekonomikoari esker, alegia), Mediterraneoa itsaso merkataria izan zen.

"Konstantinopoli ekialdeko hiri handi bat zen batipat. Auzo zaratatsuak, jendea gainezka pilaturik zutenak, alde batetik, eta bestetik auzo lasai eta bakartiak aurkitzen ziren, jardinen itsalpean elizak, monastegi baketsuak, eskolak eta ospitaleak zitustena (...). Gabe ez zen argirik izaten iluna argitzeke, eta kalea sakur alderrai zaborra-jale eta lapurren menpe gelditzen zen.

X. mendeko liburutxo batean, hiriburuko industri korporazioen zerrenda egiten da, eta esanguratsua da luxuzko industrietan besteen gainetik zeukaten nagusitasuna. Gremioetako harakin, okin, saltxitxagin, arrain- eta ardo-saltsaileen ondoan (hauei bait zegozkien hiriarri bisigaia emateko karga latsak); eraikuntzako industrien ondoan (arots, sarrailari, pintatzaile eta marmolariak), normala bait da hauen garrantzia beti asko eraiki izan zen hiri batean; bankarien ondoan, hauen kopuruak argi uzten bait du diruaren sal-erosketak zuen garrantzia, bazen beste korporazio-multzo bat ere, aberatsena eta agian joriena, luxuzko gauzagileek osatua, eta hauek mantentzen zuten mundu osoan Bizantzioren ospea. Urreginak ziren, urre, zilar eta harri-pitrien sal-erosketan aritzen zirenak; zetagileak eta zetakien inportatzaileak, seintzetatik batzuek zeta gordinarekin komertziatzen bait zuten, beste batzuek ehunak egiten zituzten, beste batzuek Bizantzioko telen salmenta-monopolioa zeukaten eta zenbaitzuek Bagdad edo Siriatik inportatzeko zeta-gausen eta jantzien espezialitatea; lihozko ehunen merkataria ere han zeuden; perfumelariak, Erdi Aroko gizartearentzat hain atsegingarri ziren eta hiriburura Trebisonda sehar iristen ziren espezia eta usainkiak saltzen zituztenak.

Konstantinopoli, askenik, dibertsioen hiria zen. Jauregi Sagartuaren eta Santa Sofiaren aldamenean, hipodromoa zen bizantziarren bisitzaren zentruetako bat, eta XIII. menderarte zaldi-lasterketak eta zirku-emanaldiak izan ziren hiriburuko eskaintzen zituen atseginik gustagarrienak, bai Inperioko bisilagunentzat eta bai atzerriarrentzat".

(C. DIEHL, 1919)

Charles Diehl, historilari frantsesa da (1859-1944). Ikerlanak, mundu klasikoan egin zituen: hain zuzen, Erroma eta Atenako Eskola Frantsetako partaidea zen. Baina Inperio Bizantziarraz egin zituen ikerketak dira aipagarrienak; beste batzuen artean, "Afrika Bizantziarra" (1896), "Justinian eta zibilizazio bizantziarra, VI. mendean" (1901). Badu, gainera, Inperio haren historia orokor bat ere (1921).

Inperio Bizantziarraz lehen argibideak izateko, komeni da "Historia/1" begiratzea: ik. 160-167. orr. Hango gizarteari buruzko berri labur bat hor bertan aurkituko dugu, 161-163. orr.

EGJTEKOAK

- a) Konstantinopoli eta Trebisonda hirien kokalekua eman mapa batean.
- b) Bila, entziklopediaren batean, Konstantinopoli-ren plano historiko bat. Egin berorren iruzkin bat.
- c) Inperio Bizantziarra hedapen handia izan zuen: mapa batean jar itzazu menpean zeuden lurraldeak. Mapa berean, leku ezberdinetatik hiriburura zihozten erosgaiak adieraz. Gezien bidez, norabideak defini.
- d) 10. mendean Mendebaldean zegoen egitura sozio-ekonomikoa gogora, eta testuaren bidez ezagutu duzun bizantziarrenekin gonbara.
- e) "Zeta-ren bidea" ospetsuaz datuak bil: Noizkoa da? Nondik nora zetorren? Nontzuek menperatzen zuten? Marko Polo-k, badu zerikusirik bide horrekin?

ERANTZUTEKOAK

- a) "Bizantzio", "Konstantinopoli" eta "Istanbul" lekuizenen bereizketa kronologikoa egin, arrazoiak emanez.
- b) Konstantinopoli hiriak, zeintzu funtzio ezberdin betetzen zituen?
- c) Gremioen artean, zeintzuk dira ospetsuenak? Zergatik? Nondik dakartzate behar dituzten lehengaiak? Noruntz esportatzen dituzte manufaktura?
- d) Konstantinopoli "Ekialdeko hiri handi bat" dela esaten du testuak. Zer dute berezirik Ekialdeko hiriek? Nolakoak dira? Beste adibide batzuk aipa.
- e) Zergatik dira argiagoak kontrastatzen sozialak hirietan, landetan baino?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Gelasio Aita Santuak, Anastasio I.ari, Bizantzioko Enperadoreari, bidalitako eskutitz honetan, botere zibilaren aurrean Elizak duen lehentasuna aldarrikatzen du. Mendebaldeko Inperioa deseginda dago V. mendearen bukaeran, eta botere zibil berriek dituzten zailtasunen ondorioz, Elizaren itzala nagusitu zen: erlijioak eta kultur balioek eman zioten Elizari herri germaniarren gidaritzza.

"Bi botere daude, enperadore txit goren hori, mundua eraentzen dutenak: Aita Santuaren autoritate sakratua eta erret boterea. Horietatik lehenengoa da askoz ere garrantzitsuagoa, erregeen eta gizakien kontuak ere eman beharra bait du Jainkozko auzitegiaren aurrean. Jakin ere badakizunez, gure seme bihospera horrek, giza arrazaren gain duintasun handieneko lekua daukazu arren, hala ere leialki menpera behar zakizkio Jainkozko gauzen ardura dutenei eta horiek defendatu behar dituzu zure salbazioa lortzeko. Badakizu, ezen sakramentuak hartzeari eta erreberentziaz administratzeari dagozkienetan, eliz autoritateari behar diozula obeditu, berori zure gogara makur erazten ibili ordez".

(GELASIO Aita Santuak Anastasio Enperadoreari, 494)

Gelasio I.a Aita Santua (492-496). Manikeo, arriandar eta pelagiarren aurka ari izan zen, azken buruan Erromako Elizaren nagusitasuna eta apezkeriaren disziplina berrezarritik. Subiranoen Elizarekiko menpekotasuna defendatu zuen Aita Santu honek. Monofisita suharra zen Enperadore Anastasio I.ari (491-518) zuzendu zion gutun hau. Garaiko ortodoxiaren eta mugimendu monofisitaren arteko gatazkan ulertu behar da testuak dioena.

"Historia/1" liburuan badituzu argibide orokor batzuk hemengo agiri hau argitzeko: ik. 151-153., 158. eta 161-165. orr.

EGJTEKOAK

- a) Mapa batean eman 6. mendeko Erreinu barbaroen geografia politikoa.
- b) Erresuma barbaro horiei kontrajarritz, eman mapa batean Inperio Bizantziarraren barrutia.
- c) Ardatz kronologiko batean eman 5-6. mendeetako errege germaniar handien eta Aita Santuen zerrenda hautatu bat.

ERANTZUTTEKOAK

- a) Zein izan zen Elizaren betekizuna herri germaniarren inbasioak gainera etorri zirenean?
- b) Herri germaniarrak finkatu ondoren eta Mendebaldeko Inperio Erromatarra desagertzean, zein da Elizaren jarrera? Nola lor erresuma berri hauen onarpena?
- c) Herri germaniarren eta Inperioko biztanleen artean Elizak izan zuen bitartekari-funtzioak, nolako abantailak eman zizkion erakunde honi?
- d) Zer esan nahi du Tronu-Aldareen aliantzak? Nola ulertzen zuen hori Aita Santu honek? Teokrazia ote da hori?
- e) Zein zen Elizaren egitura? Bai al zuen buru garbirik? Zein izan da mende hauetan Elizaren barne-istilu nagusia, eta nolako ondorioak ekarri zituen?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

V-XV. mend.

Ekialdeko Inperio Erromatarrek herri germaniarren migrazioen ondoren mila bat urte gehiago iraun zuen. F.G. Maier-en testu historiografiko honetan bertako gizartearen azterketa bat eskaintzen zaigu. Lehen mendeetan aurreko sistema esklabistaren jarraitzaile izan arren, gerora sistema feudal bilakatu zen, Europako beste herrialdeetan bezalatsu.

"Bizantzioko gizartearen esaugarririk nagusiena, zorrotz mugatutako estratifikazio soziala izan zen: 'potentes' eta 'humiliores' en arteko tentsioa literaturan bezain argi segoen legerian. Garrantzi sozial nabariko aristokraten eta lurjabeen klase murriztaren ondoan beste behe-klase sabal bat bizi zen, pobretua, eta landan bederen, argi eta garbi serbutsepean bizi zena; eta bi klaseon artean bazen klase ertain hiritar bat ere, merkataritzan eta artisautzan ziharduena, baina sarritan nola-halako egoeran bizi zena (...); nekazaririk gehienak glebatarrak ziren, jaun feudalen ('coloni') serbu erdilibre bezala bizi zirenak; egia da, hala ere, ez zela erabat desagertu nekazari trikiren bat edo besteren jabego librea. Industrial edo merkatariak (zeintzuen produktuak garrantziskoak bait ziren armada, administrazioa eta hiri handiak hornitzeko) behartuta sartu zituzten gremioetan ('collegia'), bertako herentziatzako kide eginez (...).

Ofizio jakin bati eta beraz klase jakin bati herentziaz lotuta egon behar honek (...) sistemaren barruan batetik bestera mugitu ahal izatea gero eta gehiago mugatzeko arriskua sortzen zuen".

(F. G. MAIER, 1974)

F.G. Maier, Stuttgart-en jaioa da. Alemanian, Italian eta Grezian egin zituen ikasketak, eta Frankfurt eta Konstantzako Unibertsitateetan izan da irakasle, batez ere Antzinatea eta Ekialde Hurbilaren historia izan ditu gairik maiteenak. Txipreko indusketa alemanen buru ere izan da, eta Bizantziari buruz badu obra bat: "Byzanz" (Gaztelaniaz: Siglo XXI.).

Bizantzioko berri gehiago "Historia/1" liburuan ikus daitezke: 160-166. orr. esaten da antolamendu sozio-ekonomikoaz zerbait.

EGJTEKOAK

- a) Egizu Inperio Bizantziarra lekutuko eta berorren lurralde-bilakaera argituko duen mapa bat. Zeintzuk ziren Inperio herrialde eta gune garrantzitsuenak? (Egipto, Siria, Grezia, Antiokia, Alejandria, eta abar).
- b) Agirian kontzeptu berriak agertzen dira: "glebatarrak", serbu ("coloni"), gremio ("Collegia"). Saia zaituz aurreko mendeetako zenbait kontzepturekin alderatzen.
- c) Bila Bizantzioren historiari buruzko informazioa. Noiz eta nondik sortzen da Inperio Bizantziarra? Noiz arte iraun zuen?
- d) Industrial eta merkatarien iharduera oso garrantzizkoa izan zen Bizantzion: Bila ezazu informazioa gehien lantzen diren industri arloei buruz.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein da Bizantzioko gizartearen ezaugarriarik nagusia, eta nola ispi-lutzen da berezitasun hori?
- b) Zeintzu dira "potentes" eta "humilioes" deituak?
- c) Zein da gizatalde bakoitzaren lekua Bizantzion?
- d) Zergatik zegoen Bizantzioko gizartean halako egonkortasuna eta hain kontrol estua? Esprika ezazu hori.
- e) Nolako eragina izan zuen Inperio Bizantziarrak Mendebaldeko munduan?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Inperio Erromatarraren erorikoan zerikusi handia izan zuten barbaroek; baina, hala ere, haren ekonomiarri beraiek segurtatu zioten segida. Erromatarrek bezalaxe, harreman ekonomiko bizkorrak mantendu zituzten Ekialdearekin, nahiz eta harreman horiek defizitarioak izan Mendebaldekoentzat. Bizantzio, Ekialdearen eta Mendebaldearen artean zubi gertatu zen egoera eta prozesu hartan, musulmanen etorrerarekin aldakuntza sakonagoak agertu ziren arte.

"Historikarietengabeko lanak eta arazoak planteatu izan dizkien fenomeno bat, Mendebal Europan 700. urte-inguruan gertatu zen urre-monetaren desagertzea da. Mendebal Europa oso urre-produzitsaile apala zen, eta, hala ere, merobingiarren garaian ere etengabe jarraitu zuen produktu orientalak inportatzen (...), bere aldetik (...) ekialdetarrak erostera zirikatu zituen merkantziarik produzitu gabe. Horrela gehiegizkoa bihurtu zen inportazioa Mendebal Europan; hori, berriz, urretan zegoen ordaindu beharra, eta hala, lehentxeago edo beranduxeago ahitu egin ziren kontinenteko urre-erreserbak, eta azkenean urrea bera desagertu egin zen zirkulaziotik, moneta bezala (...).

VII. mendearen bigarren erdialdean munta handiko zerbaite gertatu zen (...): Abd-al-Malik Kalifak Islam-eko moneta-sistema eraberritzeari ekin zion: urrezko dinar-a txanpondu zuen, 4,25 gr-ko pisuarekin, eta zilarrezko dirhem-a, 2,97 gr-ko pisuarekin. Urrearen eta zilarraren arteko balio-erlazioa letik 14erakoan finkatu zen (...) herri islamikoetan, Mendebal Europan letik 12rako bakarrik zen bitartean. Hori zela eta, Mendebal Europan urrerik zutenek irabazi handiak egiten zituzten urrea zilarraren truke musulmanei saltzea lortuz gero (...), eta horrela, Europan txanpondutako urrearen parte handi-handi bat musulmanen txanpondegietarako ('ceca') bidean jarri zen ezinbestean, alderantziz urre horren ordainetan zilar-pila handiak Mendebal Europaratzen ziren bitartean.

Ekialdeko Erromatar Enperadoreak, urre-moneta bizantziarrak babestu asmoz (...), letik 18ra esarri zuen urre-zilarraren arteko balio-erlazioa; erabaki hauek areagotu egin zuten oraindik fenomeno". (J. DHONT, 1970)

J. Dhont, Belgikako Gent-eko Unibertsitatean irakaslea izan da, eta erdiarolaria da. Goiz Erdi Arozaz eman duen historia soziala, sintesi ona da, Aro hura sakontzen hasteko: "La Alta Edad Media" tituluarekin argitaratu da gaztelaniaz Siglo XXI editorialean (ik. agiri onetarako 284-285. orr.).

Bizantzioren historia benetan miregarria da, garai bereko Mendebaldekoaren ondoan. Ikus, zerbait ezagutzeko, "Historia/1"ean 160-167. orr: irakur arretaz, batez ere, "Gizarte-oinarriak", 161-163. orrialdeetan.

EGJTEKOAK

- a) Egin Bizantzioko Inperioaren mapa, eta zehaztu, kolore desberdinak erabiliz, mende bakoitzean galdu zituen lurraldeak.
- b) Jarri mapa horretan Inperioak kanpotik zituen mehatxuak.
- c) Jarri mapa horretan lurralde bakoitzak ematen zuen produkturik garrantzitsuenak.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zergatik galtzen zuen Mendebaldeak urrea? Nora zihuan metal preziatu hori?
- b) Zein sistema ekonomiko zuen Bizantziok? Zer esan nahi du horrek?
- c) Bizantziok lurralde handiak galdu zituen. Zein ondorio izan zuen honek ekonomian?
- d) Monetari dagokionez, zein erabiltzen zen Bizantzion? Esprika ahal duzuna honi buruz.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Mahomak, VII. mendean predikatutako erlijio mono-teista bati buruzkoa da Bodin eta Poisier-en testu hau: Islamaz ari da. Ordurarte Arabian politeistak ziren merkatari aberatsek, ez zuten berehala onartu Allah jainko bakarra; baina, Mahoma hil aurretik jada Arabia osoa islamdarra zen. "Koran" liburu sakratuan bildu ziren sineskizun eta agindu nagusiak.

"Islam-a ez da zehetasun handiegitan galtzen den erlijioa. Fededunen beharretara egokitua, betebeharrak zeintzuk diren zehatz-mehatz adierazten ditu. Hasiera batean eragin kultural desberdinak jaso bazituen ere, bere originaltasuna ukazina da. Honela: Abraham-en, Moise-ren eta Jesus-en ondorengo izango da Mahoma, eta honen profeziak Biblia-koen pareko izango dira.

Dogmaren mamia honako bost agindu hauetan jasotsen da:

Fede-aitorpena: honen bidez monoteismoa (Allah) eta Koran-aren doktrina aitortzen dira.

Otoitza: Egunean bost aldiz eta Meka-ra begira egin behar da.

Baraua: Ramadan izeneko hilabetean egindako baraua, hots, ilar-
gi-urteko bederatzigarren hilabetean. Ez daukate egun osoan, eguz-
kia sartu arte, ezer jaterik edota edaterik.

Erromes-bidaia: Fededun guztiek, gutxienez bizitzan behin, Meka-
ra joan beharra zeukaten.

Limosna (zakar-a): Hasieran behartsuei laguntzeko jarria, gerora zerga ofizial bihurtu zen".

(M. BODIN; J. POISIER)

Erljio guztiek izan ohi dituzte bere arau etiko eta sozialak, Jainkoarekikoak, gizartearekiko eta fededunen elkartearrekikoak egiteko. Arau hauek harreman erlijioso eta sozialen sistema osoa egiten dute, eta herrien nortasun kulturala gauzatzen ere lagundu ohi dute.

Islamari buruzko lehen berriak jasotzeko ikus "Historia/1" liburua: 168-175. orr. Erlijioaz baduzu zerbait 174-175. orrialdeetan. Gaurkotasun hurbilago batekin lan egiteko, ik. "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n 529-538. orr.

EGJTEKOAK

- a) Atlas historikoren batean oin-hartuz, egizu mapa bat eta erlijio islamdarraren hedapen-barrutia seinala (8. mend.)
- b) Bil Mahomari buruzko informazioa, eta idatz haren datu biografiako interesgarrienak.
- c) Ikus hiztegi batean politeismo eta monoteismo kontzeptuen esanahiak. Bila, Historian zehar, bi herri politeista eta bi monoteista: aldera haien Jainkoak.
- d) Ezagutzen al ditugu beste erlijioetan "Ramadan"aren antzeko ohiturak? Zertan datza Ramadan-a? Eman lauki batean, konparatu dituzun bi ohitura erlijiosoen arauak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer esan nahi du, "Islam" hitzak, menpekotasuna adierazten du" esaldiak?
- b) Mahomak bere predikatuak egin baino lehen, Meka garrantzi handiko merkatal hiri erlijiosoa zen, baina Mahomak Medinara ihes egin behar izan zuen: Zergatik? Noiz? Nola deitu izan zaien horri?
- c) Zein modutan dago banatuta Koran-a? Zer dira "sura"ak? Zenbat dira?
- d) Zer da "zakat"ak? Zer iruditzen zaizu horrelako arau erlijiosoa ezartzea?
- e) Aipa itzazu gaur egunean erlijio islamdarra nagusi den hiru nazio.
- f) Zein da zure eritzia erlijio honi buruz? Beste zein erlijioekin alde-natuko zenuke?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Testu honek, Islamaren hedapen-arrazoiak azaldu nahi ditu, fenomeno historiko hartaz historiografian kontrajarrita ageri zaizkigun tesi argigarriak gogoratuz. Eztabaida baterako aukera ematen du beronek.

"Aspaldidanik bi tesi dabilta fenomenoa esplikatzen nahian: bata erlijiosoa da, eta fuitsezko arrazoitzat fede-zaletasuna ematen du, beronek emango bait zien arabiarrei Islam-a jentilen herrialdeetara eramane eta erlijio berria nagusitasunez ezartzeko borondatea; bestea, arrazoi materialista da eta uste du, arabiarrek, Islam fedeaz zela bide suertatutako azaleko elkartasunak bilduta, baina beharrezan ekonomikoak bortxatuta, eta bizibeharra segurtatzeko, ekin ziotela basterrak konkistatzeari, Arabiako lurak geroz eta gutxiago ematen zielako. Bi hipotesiak balio badute ere, ez batak eta ez besteak, esta biak batuta ere, ez dute adierasten haiei konkistara eragien zieten arrazoi multzoa. Lehenengo, fedeaz zabaltzeko xedea ez zen beduinoentzat arrazoi esplikagarria, hauek ez bait zuten artean erlijio berria erabat asimilatu, eta bai Mahomaren laguntzat, hauek bait ziren lehenengo arriskuei aurre egin behar izan zietenak, eta fedegabeak garaitu zituztenak; musulmanen esenpluak eta arrakastak beren eragina izan zuten, ncs-ki, musulmanez eta izenez bakarrik konbertitu zirenen gain. Konkistaren hasiera-hasieratik lortutako garaipenek konbentsimendua sortu zuten, ezen musulmanek zeukatela arrazoiak, eta hori areago oraindik garaituen ondasunak garaileen eskuetara zihoazela ikustean: Profetak iragarritako saria ez ote zen gero hori?"

(R. MANTRAN, 1982)

Robert Mantran, historilari frantsesa da, Aix-en-Provence-ko Unibertsitatean irakaslea. Frantziako arabisten artean kokatu behar da, beraz, autore honen lana. (Hemen ezin ahanzi, aukera egokia da eta, Lévi-Provençal-en al-Andalus-i buruzkoak ere). "L'expansion musulmane" obra zor diogu Mantran-i.

"Historia/1" liburuan 169tik 173ra doan ikasgaiari ikus ditzakezu Islamari buruzko lehen argibide laburrak; baina komeniko da entziklopediaren batean xehetasun zabalagoak ere bilatzea, "Islam" hitza edo begiratuz.

EGJTEKOAK

- a) Musulmanek 7-11. mendeetan egindako konkista militarrek jarri mapa batean: mendeen arabera margotu.
- b) Eman mapa batean gaur eguneko herri musulmanak.
- c) Aurreko bi mapen arteko diferentziak deskriba, eta saia zaituzte azalpenak ematen.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Musulmandarrek egindako konkistei buruz teoria eta eztabaida aski sortu da Historiografian. Zeintzuk dira Mantran-entzat fenomeno hau argitzen duten faktoreak.
- b) Faktore hauen kritika pertsonala egin, arrazoiak emanez.
- c) Nola organizatu zituzten musulmanek, konkistatutako lur eta gizarteak? Noren onerako zegoen pentsaturik organizazio hau?
- d) Zer suposatu zuen herrientzat musulmanen agintepean gelditzeak? Zer politikan, ekonomian, gizartean nahiz kulturatan?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

VII-XI. mend.

Agiria, pasarte historiografiko bat da. Testuan, Inperio arabiarreko klase sozialak aztertzen ditu historilariak, eta zehazkiago, Omeiarren kalifaldian eman zirenak. Pausoz pauso aipatzen ditu "arabiarrek" (konkistatzaile musulmanak) "mawali"ak, "dimmi"ak, eta azkenik esklabuak, bide batez beraien hainbat ezaugarri ematen digula.

"Omeiarren kalifaldian, arabiarren nagusitasunak ez zuen aurka-penik ikusi, Omar II.aren erreinaldirarte. Konkistatzaile musulmanek halako goi-klase bat osatzen zuten; kalifaren autoritate ispiritual eta denporalaren aspian jarritako aristokrazi modu bat zen berori. (...).

Populazioaren bigarren elementua 'mawali' zirelakoek osatzen zuten. Berehala nahi izan zuten hauek beren burua musulmanekin berdinetsi, baina horien erreakzioarekin egin zuten topo. Lehenengo 'mawali' hauek arabiarren 'bezero' izan ziren, baina berak ez ziren arabiarrek, Inperioan zeuden hainbat arraza desberdinetako kide baizik. Arabiar ez izatea izan zen haientsat trabarik handiena, gidari-mailatara luzaroan helduezinik egon behar izateko (...).

'Dimmi' edo babestuek, nahikoa bisitza lasaia izan zuten aldi batean. Kristauek pribilegiosko egoera izan zuten Abd al-Malik eta Walid-en erreinaldiak arte, kontutan izanik, ez zirela komunitate musulmaneko kide. (...).

Esklabuak egiten ziren, erosketas, gerra-harrapakinez edo razzia-bidez, eta etengabeko eboluzioan zegoen klasea zen hau, zeren Islam-ak manumisioa laguntzen bait du, eta libertua bere jaun ohiaren 'mawla' (bezero) egiten zen. Esklabuen salmenta berehala sabaldu zen, arabiar handikien aberastasun ekonomikoek eta Afrikatik, Ertasiatik, Eki eta Ipar-eki Europatik zetozen esklabu-merkatarien eskaintzak eraginda".

(R. MANTRAN, 1982)

Robert Mantran, historilari frantsesa da, Aix-en-Provence-ko Unibertsitatean irakaslea. Frantziako arabisten artean kokatu behar da, beraz, autore honen lana. (Hemen ezin ahortzi, aukera egokia da eta, Lévi-Provençal-en al-Andalus-i buruzkoak ere). "L'expansion musulmane" obra zor diogu Mantran-i.

"Historia/1" liburuan, 169-175. orrialdeetan, topa ditzakezu Islama-ri buruzko datu zehatzagoak.

EGJTEKOAK

- a) Histori liburuetan edo entziklopedietan sakon ezazu "Historia/1" liburu-
an datorren informazioa, musulmanen gizarteari dagokiona batipat.
Egin, ahal baduzu, piramide egoki bat.
- b) Idatzi laburpen bat daturik garrantzitsuenekin: sorrera, hedapena, gi-
zartea, ekonomia, kultura.
- c) Mapa batean seinala, margo bidez, Inperio arabiarren hedapena, honako
puntu hauek kontuan harturik: Islama, Mahoma hil ondoren; Kalifatu
Ortoxoaren konkistak; Omeiarren konkistak, eta ondoko konkistak.
- d) Azter Omeiarren kalifaldia: sorrera, hedapena, etab.
- e) Begira, hiztegian, testuan aipatzen diren hitz hauen esanahia: kalifa,
mawali, bezero, dimmi, mawla eta manumisioa

ERANTZUTEKOAK

- a) Noiz hasi zen Omeiarren kalifaldia? Noiz arte iraun zuen?
- b) Non kokatu zuten Inperioaren hiriburua? Zeintzuk ziren kultur hiri na-
gusiak?
- c) Noraino iritsi ziren lurraldearen hedapenean?
- d) Gizarte honetan, nortzuk osatzen zuten goi-aristokrazia? Zergatik?
- e) Nola lortzen zituzten esklabuak? Nondik ekartzen zituzten?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

X-XII. mend.

Arabiarrek merkatal iharduera bizkor bati eutsi zioten, Ekialde eta mendebaldearen arteko bitartekari bihurtzeraino. Onaldi ekonomikoaren oinarria distantzia luzeko merkatalgoan finkatu zen. Zortzi mende baino gehiagotan Islam-ak monopolizatu zituen munduko merkatal bideak. Landaren eta hiriarren artean, nekazaritza, artisautza eta merkataritzaren arteko oreka izan ziren zibilizazio islam-darraren nagusitasun-arrazoia.

"Esportaziogai txit ezagun bat esklabuena da: Frantzia edo Galizian harrapatutako neska-mutilak izaten dira, eta eslaviar irenak ere bai. Lurbira osoan aurkitzen diren iren eslaviar guttiak al-Andalus-etik datoz.

Izan ere irendu egiten zituzten herrialde honetan (Lucenako juduak), eta merkataritza judutarrek izaten ziren operazio hori egiten zutenak..." (IBN HAWQAL, X. mend.)

"Pertsiaiko asafraia nahi dut Txina-ra eramán, entzuna bait dut, oso prezio handia egiten duela han, eta gero Txinako portzelana Greziara, Greziako brokatua Indiara, Alepoko beira Yemenera eta Yemeneko tela arraiatuak Pertsiaara". (AL HARIRI, XI. mend.)

Ibn Hawqal, Geografia arabiarren urrezko mendekoa da (X. mend.), eta, hain zuzen, arabiarren artean halako garapen ederra izan zuen zientzia honetan klasiko handia. --Al Hariri (1054-1121) hurrengo mendeko idazle arabiarra da, Basoran jaioa.

Musulmanen antolamendu sozio-ekonomikoaz argibideak "Historia/1" liburuan daukazazu; begira 171. orrialdea. Eta Islamaz orokorki, oster, 168-175. orrialdeetan.

EGJTEKOAK

- a) Begira, hiztegi batean, azafraia, porzelana, brokatua, beira eta tela arraiatua zer diren. Ikus berorien teknika, erabilgarritasuna, etab.
- b) Koka ezazu geografikoki zibilizazio islamarra. Zein da eskualde horietako klima? Nola baldintza lezake klima horrek zibilizazio-molde hura?
- c) Islamaren historia eta geografia aztertu ondoren, eman mapa batean hiri musulman handienak
- d) Marraztu, duzun mapa horretan, ustezko merkatariren batek egingo zituzkeen bidaiak, herrialde horiek geziekin lotuz.

ERANTZUTEKOAK

- a) Aipa itzazu zein lehengai garraiatzen zituzten, testuan izendatzen denaren arabera, eta lehengai hauei zein erabilera ematen zieten ikus. Banan banan azter.
- b) Noiz hasi eta noiz burutu zen, eta nola, Islamaren hedapen nagusia? Zeintzuk izan ziren mugak?
- c) Zergatik izan zuten arabiarrek merkatal arloan halako garrantzia? Zein garraio-medioz baliatu ziren? Zeintzuk izan ziren arabiarrek kontrolatu zituzten merkatal bideak?
- d) Nola deitzen dira arabiar hirietako merkatuak: Euskaraz bai al dugu antzeko hitzik?
- e) Arabiarrek zientzietan lortutako aurrerapenak ezaguturik, nolako eragina izan zutela uste duzu Mendebaldeko kulturari?
- f) Zertan zetzan al-Andalus-en garrantzia?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

VII-XI. mend.

Erdi Aroko lehenengo mendeetan, Antzinate klasi-koan lortutako kultura eta zientziaren garapena barbaroen inbasioek oztopatu zuten. Baina, VII. mendeaz geroztik, ilunaldi orokor hartan Arabiatik erlijio berri batekin zetorren herri txiki batek jaso eta zabaldu zuen barbaroen aurreko jakite-tradizioa. Kultur bitartekaritza hau oso garrantzizkoa gertatu zen, kultura arabiarrarentzat ezetik kristauarentzat ere, medikuntzan, matematikan, astronomian, geografian edo filosofian, adibidez.

"Arabiar fisikari eta kimikariei esker elementu berri asko deskubritu ziren, aplikazio-prozedura berriak asmatu ziren eta teoria berriak formulatu. Medikuntza, Greziako medikuntzaren oinorde zena, biziro distiratsua izan zen, gaitotasunei buruzko tratatuak ere agertu bait zituen eta ikaslanak ere bai giza gorputzas, kirurgia barne: Avicena, al Razi, al Zaharawi, Ibn Zohr (Avenzoar) bezalako jakintsuek --azkeneko hirurak Mendebalde musulmanean bizi izan ziren-- ekarri handiak egin zizkioten medikuntzari.

Aipatzekoak dira halaber geografiako lehen obrak, benetan abasi-en garaiaren ispilu direnak: arabiar konkistariak eta merkatariek egindako munduaren deskubrimendua, eskualdeen eta batipat hirien deskribapenak. Geroztik, ezinbestean esagutu beharreko gai bihurtu zen geografia. Probetxuzkoa izan zen administrazioarentzat ere; geografo arabiarren obrak ezinbesteko iturritzat jotzen dira mundu musulmana aztertzeko. Zientzilarien panteoi honetan aparteko toki bat gorde behar saio Biruni iraniarrari. Ispiritu entziklopedikoa zen honentzat, ez zen zientzia arrotsik bere garaiko zientzietan, eta ohiko ez bezalako jakinmin intelektuala erakutsi zuen".

(R. MANTRAN, 1982)

Robert Mantran, historilari frantsesa da, Aix-en-Provence-ko Unibertsitatean irakaslea. Frantziako arabisten artean kokatu behar da, beraz, autore honen lana. (Hemen ezin ahanzi, aukera egokia da eta, Lévi-Provençal-en al-Andalus-i buruzkoak ere). "L'expansion musulmane" obra zor diogu Mantran-i.

"Historia/1"ean kapitulu osoa daukazu, agiri honi, dagokion testuinguru historikoa emateko: 168-175. orr. Oihenart Taldearen "Euskal Historia'n ere bila ditzakezu gai honetazko albisteak.

EGJTEKOAK

- a) Atlas historikoren batek lagunduta burutu ezazu mapa bat Islamaren zabalkunde-prozesuaz (7-12. mend.).
- b) Mapa berean edo tamaina bereko besteren batean ekonomia arabiarren puntu-ardatzak marraztu (errepide-sareak, itsas merkatalbidaiak, produktuak, hiriak, etab.).
- c) Saia zaitetz azaltzen matematika, medikuntza eta geografian arabiarrek ekarritako aurrerakuntzak.
- d) Abasiak aipatzen dira. Ea lortzen duzun berriren bat hauei buruz.
- e) Dakizunez, kultura arabiarren ardatz ideologikoa erlijio islamarra da. Zer dakizu erlijio honetaz?

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein zientzian gertatu ziren arabiarren aurrerakuntzarik azpimarragarrienak?
- b) Medikuntza alorrera joz, zein aurrerabide eskaini zuten arabiarrek?
- c) Zergatik dio geografiariek obrak abasiaren garaiaren ispilua zirela?
- d) Geografia ere probetxugarria izan zen administrazioarentzat. Zergatik ote?
- e) Nola definituko genuke "izpiritu entziklopedikoa"ren kontzeptua?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

Erdi Aroa

"Erdi Aroak", tarteko aroa esan nahi zuen garai batean, hau da, mundu klasiko greko-erromatarraren eta Ernazimentuaren tarteko mendeak; baina erdiarotarrek ez zituzten beren garai haiek horrela ikusi eta sentitu, lehenik Inperio Erromatarraren ondarea galdutzat ematen ez zutelako, eta gero, etorkizunaz ere beren ikusmolde propioa zutelako ere bai.

"Erdi Aroa --'media aetas', 'medium aevum'-- Italiako Ernazimentuko humanisten asmazioa izan zen. X. edo XIII. mendeko gizakiek uste zuten beren mundua eta beren errealtatea ulertzeko modua Antzinate klasikoaren jarraipen bezala ikustea zela. Eta hala, haien denbora, profeta Daniel-ek iragarritako lau erreinuetan azkenekoari zegokiona izango zen, hau da, frankoek herentzian hartu zuten eta Jainkoaren haserre-eguna arte irautekoa zen erromatarren erreinua. Hala zioen Adso Dervensis-ek bere 'Libellus de Antichristo' delakoan:

'Oraindik ez dira heldu mundu-azkenaren garaiak. Inperio Erromatarra hondaturik gelditu da zati handi batean; baina frankoek Inperio horri eusten dioten erreinuak dauskaten bitartean, haren duintasunak ez du erabat lur joko; haien erregeengan mantenduko da (...). Gure doktoreek esanda dakigu, askeneko garaietan frankoen errege bat izango dela Inperio Erromatarraren jain eta jabe, eta errege gutzietan handiena eta askena. Eta jakinduriaz gobernatu ondoren, Jerusalemera joango dela bere errege-makila eta koroa Olio-mendian ustera' dio autore horrek". (J. SUREDA, 1985)

J. Sureda, Barcelonako Unibertsitateko irakaslea da. Honen ikerlana, batez ere erromanikoaz eta gotikoaz izan da, Kataluniakoez eta Espainiakoez. Erdi Aroko gizartea, pentsamoldea eta sinbologia maiz aztertu dituen, ikuspegi sozial batetik begiratu du arte-lana.

Begira entziklopedietan "milenerismoa", "apokalipsia", "eskatologia" hitzak: zer esan nahi dute testuaren argitan? Erdi Aroaz begira "Historia/1"ean, 181-191. orr.

EGJTEKOAK

- a) Frankoen monarkia onartzen du testuak Inperio Erromatarraren jarraitzaile bezala. Argitu ezazu hori.
- b) 10-13. mendeetan oso bizirik zegoen zenbait kontzeptu edo gertakari argitzea komeniko da: beldurra, bekatua, zigorra eta oparia, azken judizioa, peregrinazioak, gurutzadak, sorinkeria, izurritea, gerla, etab. Bila itzazu guzti hauen arteko loturak.
- c) 11-13. mendeetan arte erromanikoa nagusitu zen. Azter estilo artistiko honen simbologia: Zer dago hor munduaren azkenaz?
- d) Begira itzazu, entziklopediaren batean, "Beato" eta "Beato de Liébana" hitzak: Bai al dute hor esaten direnek testu honetakoekin zerikusirik?

ERANTZUTEKOAK

- a) Ernazimentuan amatu ziren "Erdi Aroa", "Media Aetas", "Medium Aevum" horiek: zer esan nahi dute?
- b) Erdi Aroari beste izen edo sinonimo metaforiko batzuk ere eman zaizkio. Aipa horietakoren bat edo beste.
- c) Zein da Daniel profeta? "Daniel lehoien artean"en kontakizuna azaldu (ik. Biblia: Daniel 6, 17-25).
- d) Azken Judizioaren gaia askotan agertzen da fatxada erromanikoetan. Zer-gatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

V-X. mend.

Goiz Erdi Aroko demografiari buruzko testu honetan populazioak izan dituen une desberdinak sailkatzen ditu R. Doehaerd-ek. Marc Bloch, historilari frantses ospetsuaren lana ere aipatzen digu. Artean, noski, demografia zaharraren barnean egon arren, bazegoen populazioaren dinamismo aldakor bat ere, eta hain zuzen, karolingiarren garaian gorakada bat suma daiteke biztanlerian.

"Goiz Erdi Aroko demografi kurba honela marka daiteke Mendebal Europarentzat: beheraka handia V. eta VI. mendeetan; kurbaren mailarik baxuenean gelditu VII. menderarte, eta, dirudienez, hor gelditzen da beheraldia. Aro karolingiarretik hona, lurgorritze ugari salatzen ditu toponimiak Loira-tik iparraldera eta Rhin-etik ekialdera dauden eta ordurarte hain jendeztatuek ez zeuden eskualdeetan; hau berriz demografi handitze baten seinale da, eta IX. eta X. mendeetan zehar ere mantendu zen berori. Merkatu berrien sorrerak eta merkatarien auzoak, IX. eta, batipat, X. mendean go-tortutako hiri eta auzoguneetako murrueetatik kanpora izan zuten garapena, izan ziren demografi handitze horren fruitu bezala (...).

Argi dago, arretaz zaindu zuela Erdi Aroko Gizakiak jaiotzen murriztea. M. Bloch-ek kalkulatu duenez, poliptiko frantses, italiar eta alemanek emandako haurren batezbestekoa nekazarien populazio-multzoaren % 2a zen bitartean, bisitazio altua zen ezkongabe eta gizon-emakume alargunen kopurua (% 40). Ikusi besterik ez dago bisitazio monakalak izan zuen gorakada. Gainerantzean, kapitularrek eta kontzilioetako kanonek bildu zituzten elizaren eta botere zibilaren lantuek, abortatzeko praktikak sabaltzen ari bait ziren (...).

Aro karolingiarrak zalantzarik gabeko seinaleak ematen dizkigu populazio-handitzeari buruz; horietatik abiatuz uste izan daiteke, poliki batean hasi zela aldatzen populazioaren kopurua eta sendetsi egin zela hori Europan XI. mendetik aurrera; hala ere, demografiaren moteltasuna izango da beti ere Aro guzti honetan gizakiaren iharduera ekonomikoa inguratuko duen marko nagusia".

(R. DOEHAERD, 1984)

Renée Doehaerd, historilarisa belgiarra da, eta Bruselako Unibertsitatean irakaslea izan da. Lehen Erdi Aroko ekonomiaren historiaz arduratu da bereziki, eta aro hartaz ikuspegi honetatik begiratuta egindako liburu eroso bat eskaini digu: "Le Haut Moyen Age occidental: économie et sociétés" (Parise. Gaztelaniaz: Labor, Barcelona).

"Historia/1"ean ikus ditzakezu mende hauei buruzko albiste labur batzuk: 181-191. orr. Estatistikarik ere ikus dezakezu: 182.eko laukia.

EGJTEKOAK

- a) Erdi Aroko estatistika batzuk bila, eta egin datuekin grafiko bat (ik., adibidez, "Historia/1", 182. orr.).
- b) Egiozu iruzkin labur bat "Mendez Mende. Aro Modernoa"n duzun grafikoari: 324. orr.
- c) Konpara itzazu "Historia/1"eko (182. or.) eta "Mendez Mende. Aro Modernoa"ko (398. or.) estatistikak, edo nahiago baduzu, "Mendez Mende. Aro Garaikidea"koa (15. or.).

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeintzuk dira demografia zaharraren ezaugarri berezgarriak?
- b) Zein iturritara jo beharko du historilariak Erdi Aroko mugimendu demografikoa aztertzeko?
- c) Aro karolingiarrean populazio-hazkundera suma daiteke: zeintzuk dira aldakuntzaren arrazoiak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Inperio Erromatarra behera etorri eta herri germaniarrak nagusitu zirenean, merkatalgoak krisialdi gogorra jasan zuen, eta Europak ekonomiaren nekazaltzea ezagutu. Gizarte honen bizibideak oso urriak ziren. Landutako lurretatik lortzen zituzten jangaiak ez ziren aski, bizi izateko. Ondorioa: garaiko dokumentu historiko hauetan agertzen zaigun egoera.

582

"Urte honetan gosete handia izan zen Galia osoan. Ogia egiteko, fruita, belar eta zain irinduak nahasten ziskioten askok irinari; beste batzuek belar ondua irinduta nahasten zioten. Beste batzuek, irinik ez zeukatelako, belarrak jaten zituzten eta pustu eta hanpatuta hiltzen ziren. Asko eta asko goseak hil zituen".

(GREGORIO TOURSEKOA)

793

"Beneventon gosetea zegoela armada frankoa bidali zuten hara, eta erabat ahulduta gelditu zen, halako eran zeren garizuman barau egiteari ere utzi egin bait zion. Burgundian eta Frantsian, berriz, hil egin ziren asko eta asko gosearen gosez".

(LORSCHeko URTEKARIAK)

843

"Galiako toki askotan lurra irin pirka batekin nahastuz ogi-itxuran oretu eta hura jan behar izan zuen jendeak".

(MOSELAKO URTEKARIAK)

942

"Izugarrizko ezaldia izan zen Frantzia osoan eta Burgundian, eta hainbat izan ziren akabatutako behi-aziendak, zeren ia ez bait zen horrelako ganadurik gelditu ere egin eskualde hauetan".

(GARAIKO KRONIKAK)

1005

"Galia eta Germaniako toki askotan animalia naskagarrien eta sugeen haragia ezesik, giza haragia ere jaten zen; gosea hain zen lasgarria, zeren seme nagusienek beren amak jaten bait zituzten, eta amek beren haurrak".

(GARAIKO KRONIKAK)

Iturri desberdinetako dokumentuak ditugu kasu honetan. Batzuek, Erdi Aroko eta Antzinako Erregimeneko historiografian funtsezkoak diren iturriak: Kronikak. Besteak, bi tokitako Urtekariak eta azkenik, Gregorio Tours-ekoaren (gotzain historilariaren, c. 538-c. 594) zati bat, "Frankoen Historia"tik hartua. Hamar liburutan idatzitako kronika da hau, Goiz Erdi Aroko gizartea ezagutzeko oinarritzkoa.

Dokumentuan agertzen den arazoa hobeto ulertzeko kontsulta itzazu "Historia/1" liburuan: 138-145. eta 178-184. orr.

EGITEKOAK

- a) Atlas historikoa kontsultatuz egin itzazu Europaren bi mapa: bata, Europa V. mende bukaeran, bestea, Europa 1000. urtean.
- b) Seinala itzazu beraietan European dauden herrialde germaniarrek. Nolako bilakaera nabaritzen da mapa batetik bestera?
- c) Seinala itzazu dokumentu historikoan azaltzen diren aipamen geografikoak ere.
- d) Egizu Erdi Aroari buruzko ardatz kronologiko bat. Seinala bertan gose-urteak.
- e) Ikus entziklopediatan "Kronikak" eta "Urtekariak" (= Annales) zer diren.

ERANTZUTEKOAK

- a) Agirian oin-hartuta, azaldu Erdi Aroko ekonomia-aren berezitasunak.
- b) Orainarte kontsultatu dituzun arazoak kontuan izanik, zeintzuk dira Erdi Aroko goseteen kausak, zure ustez?
- c) Nolako ondorioak agertzen dira pertsonetan eta abereetan? Nola saiatzten dira egoera erremediatzen?
- d) Nontzuek jasan zitzaizketen goseterik handienak? Zergatik?
- e) European, Estatu berriak azaltzean, lehengo estuktura sozio-ekonomikoak aldatu egin al ziren? Nola?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Egoera juridikoak eta pribilegio berezi batzuren jabe izateak definitzen duen gizarte mota baten aurrean aurkitzen gara Adalberon-en testu honetan. Gogorki hierarkizatutako gizarte hau, Erdi Aroan eta Antzinako Erregimenean horrelakoxea izango da. Gizartearen egituraketa hau apurtzeko, garrantzizko aldakuntzak gertatu behar izan zuten ekonomian eta ideologian.

"Eliz ordenak gorputz bakarra osatzen du. Gizartea, berriz, hiru ordenatan banatuta dago. Lehen aipatu denaz gain beste bi egoera aitortzen ditu Legeak: nobleziarena eta serbuarena, biok ez bait dira lege beraz eraentsen. Nobleak gerlari dira, elizen babesle. Herri osoa defendatzen dute, hala handiak nola txikiak, eta aldi berean beren buruak ere bai. Beste klasea serbuena da. Zoritxarreko arraza honek ez du ezertxo ere eskuratzeko sufrimendurik gabe. Mantenu-gausak eta jantziak hauek inguratzen dituzte gustientsat, izan ere gizaki libreak ezin dira ezertarako baliatu horiek gabe. Beraz, bakartzat jotzen den Jainkoaren Hiria benetan hirukoitza da. Batzuek otoitz egiten dute, beste batzuek borroka, eta beste batzuek lan. Elkarrekin bizi dira hiru ordenok eta ez dira bata besteagandik bananduko. Ordena horietako bakoitzak bide ematen du beste biek lan egin dezaten. Eta bakoitzak beste biei laguntzen die. Lege hau indarrean egon den bitartean, bakean egon da mundua".

(ADALBERON, 998:

Carmen ad Rotberthum regem francorum)

Adalberon, Reims-eko artzapezpikua izan zen; baina, eliz ardurakizunak ezezik, Inperiokoak ere hartu izan zituen bere gain. Frantzian, Hugo Kapet erretaulkiratzen ere lagundu zuen, eta Reims-en koroatu (987). Batez ere ekintza honegatik pasatu da Historiara.

Erdi Aroko gizarte feudala eta beronen oinarri juridikoak, "Historia/1" liburuan 185-191. orrialdeetan ikus ditzakezu. Garai bereko produktio-modu berriak, 181-184. orrialdeetan.

EGJTEKOAK

- a) Atlas historikoa kontsultatuz, egin 1000.eko Europaren mapa bat. Eman aditzera bertan Europako herrialde eta gune garrantzitsuak: Inperio Germaniarren batasuna; normandiarren hedapena; gatazka-mugak: Hegoaldean, musulmanekin, eta Ekialdean, hungariar eta eslaviarrekin.
- c) Ardatz kronologiko batean adieraz Erdi Aroko data garrantzitsuenak: Erdi Aroaren hasiera eta bukaera. Lekutu ardatzean agiri hau ere.
- d) Egin ezazu feudalismoaren piramide soziala. Seinala itzazu gizarte zibilaren eta klerikalaren berezitasunak.
- e) Erdi Aroko filmografiatik hauta: "Gaberdiko kanpaiak", "Cid", "Ivanhoe", "Arrosaren izena", etab.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Zeintzuk eta zenbat dira dokumentuan agertzen diren taldeak?
- b) Estamentuak, ordenak eta klase sozialak, berdinak al dira?
- c) Zeintzuk dira dauden ordenak? Zeintzuk talde sozialak? Zenbat estamentu eta zenbat klase sozial azaltzen dira? Gehienak zein ordena eta zein klase sozialetakoak dira?
- d) Zerk baldintzatzen du, batez ere, estamentu batekoa edo bestekoa izatea?
- e) Talde homogenoak al dira estamentu horiek? Azter batipat gero Hirugarren Estatuaren deituko den taldea.
- f) Zure ustez, zein ordenatakoa izango litzateke dokumentuaren autorea? Zergatik diozu hori?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Mendebaldeko Inperio Erromatarra erori zenetik, ez zen artean sortu Ekialdekoarekin pareka zitekeen beste ondoriorik. Indarra eta ospea Bizantzion zegoen. Egoera hori Karlomagnoarekin gainditu nahi izan zen: errege batek guztien gaineko ospea irabazi zuen, eta Erromako Aita Santuak eta biek, jarriko zituzten galdutako handitasuna birreskuratzeko bideak.

"Eta nola garai honetan greziarren lurraldean inork ez zuen Enperadore-titulurik, eta Inperioa ere emakume batek gobernatzen zuen, iruditako zitsaien Leon Apostoluen Ondorengoari eta Kontzilioan bildutako Guraso Santuei, eta berebat kristau-herriaren enparatuei, ezen Karlos frankoen erregeak behar zuela Enperadore-titulua hartu, berau bait zen Erromaren beraren nagusi, eta betidanik bertan bizi izandu bait ziren Zesar-ak, eta haren beste egoitzak ere Italian, Galian eta Germanian bait zeuden.

Errege Karlos-ek ez zuen ezetsi nahi izan haien eskaria, eta horregatik Jainkoari eta Gotsainen eta kristau-herri osoaren eskariari men eginez, Enperadore-titulua hartu zuen Aita Santu Jaun Leonen kotsagrazioarekin, Jesukristo Gure Jainaren Jaioteguan".
(LORSCH ABATETXEKO URTEKARIAK, 801)

"Erroman ospatu zuen Eguberria. Egun txit santu honetan, Meza entzuteko errezeptu ondoren altxatzen zen bitartean, Aita Santu Leonek koroa bat ipini zion buruan eta Erromako herri osoak goratu zuen, oihu eginez: Bizia eta garaipena Karlos Augustori, Jainkoak Erromatarren Enperadore handi eta baketsu koratu duenari! Eta gora hauen ondoren 'Enperadore' eta 'Augusto' esaten zioten".

(ERRET URTEKARIAK)

"Guri dagokiguna zera da: Jainko-bihozberatasunaren laguntzaren arabera, armen indarrarekin eta alde guztietan, Kristoren Eliza Santua jentilen eraso eta fedegabekoek txirikiziotatik defendatzea... Berorri dagokiona da, ostera, Aita Txit Santu horri, Moise-k bezala besoak jainkoarengana jasoz, gure armadari laguntzea, berorren erreguei esker, kristau-herriak Jainkoaren Izen Santuaren kontrako etsaiak aspira ditzan eta Jesukristo Gure Jainaren izena mundu guztian goratua izan dadin".

(KARLOMAGNO, 768-814)

Mendebaldeko Inperio karolingiarra jaiotzean zerbait funtsezkoa egin zela uste izan zen. Hala zioten, bederen, garaiko kronikari eta politikariek. Egoera politiko berriari ideologia bat ere landu zioten haiek: testu hauen autoreak politika berriaz interesatuak dira denak.

Une honetako testuinguru historikoa ezagutzeko ongi datorke "Historia/1"eko 157-167. orrialdeak begiratzea: Mendebaldea eta Bizantzio kontrajarrita ageri zaizkigu.

EGJTEKOAK

- a) Egizu Karlomagnoaren bizitzaren sinopsi kronologiko bat.
- b) Egin gauza bera Leon 3. Aita Santuaren eta Joana Bizantzioko enperadorearen bizitzarekin.
- c) Hirurak kontutan harturik, mapa batean ikus nola zegoen 800. urte inguruan Mendebaldeko Inperioaren arazoa.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein arrazoi ematen dira Karlomagnoaren Korvazioa zuzenestatzeko?
- b) Zein titulu du Leonek Korvazioa egin ahal izateko?
- c) Zein dira Inperioan "beso sekularren" betekizunak.
- d) Zein, "beso eliztarrenak".
- e) Korvazioa, testuak dioten bezain ekintza desinteresatua izan al zen?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1095

Urban II.a Aita Santuaren Gurutzada-deia da hemen irakur dezakegun hau. Gurutzadak, XI-XIII. mendee-tan egin ziren, Aita Santuen babespean, Leku Santuak turkiarren eskuetatik askatzeko. Mendebaldeko kristauak eraturako espedizio erlijioso-militarrak ziren; baina lehenengo Gurutzada (1095) izan zen zentzu erlijioso biziena izan zuena. Clermont-eko Kontzilioan egin zen dei hau.

"Doazela, bada, jentilen kontrako gerrara, gerra pribatu eta abusuzkoetan fededunen kaltetan ibiltzen direnak, egitea eta gairapenarekin burutzea merezi duen gerra da hori eta!

Izan bitez aurrerantzean Kristoren zaldun, gaurdaino mendi-lapur besterik ez zirenak. Borroka bitez bidezki barbaroen kontra, beren senide eta ahaideen kontra gudukatsen zirenak!

Hona soldata zikin baten mertzenari zebiltzanok lortuko dituzten sari betikoak: ohore bikoitz batengatik egingo dute lan, lehen beren gorputz-arimen kaltetan nekatsen zirenak. Hemen triste eta pobre ziren; han alai eta aberats izango dira. Hemen Jainaren etsai, han haren adiskide izango dira".

(URBAN II.a Aita Santuaren deia, 1095)

Urban II.a 1088tik 1099ra izan zen Aita Santu. Cluny-n ikasketak egin eta gero, Ostiako gotzain eta Kardinale izendatu zuten 1078an. Gregorio VII.aren politika erreformatzailea jarraitu zuen, simonia, nikolaismoa eta inbeztidura laikoa kondenatuz. Apaiz-haurrak betekizun sakratuetatik aldendu, eta bereziki gotzain zismatikoen aurka neurri gogorak hartu zituen. Lehenen Gurutzada, Aita Santu honen deiari erantzunez egin zen.

Komeniko zaizu, Gurutzadak hobeki ulertzeko, "Historia/1"eko 205-208. orrialdeak irakurtzea: Gurutzaden arrazoi sozio-ideologikoak daude hor. Begira entziklopediaren batean, Gurutzaden historia labur bat.

EGITEKOAK

- a) Mapa batean adieraz lehenengo gurutzatu hauen ibilbideak: itsasoz, lurrez.
- b) Ondoko beste Gurutzadetan nondik nora eta non egin ziren haiek? Eman mapa batean horren berri.
- c) Nola zuzenesten ziren gerra haiek? Bidezkoak ote ziren?
- d) Gurutzadetakiko estatistikekin egin grafiko konparatibo batzuk, entziklopedietan eta halako daturik biltzerik baldin baduzu behintzat.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Zer ziren Gurutzadak? Noren aurka zuzenduak? Norak babesten zituen? Zein mendetan gertatu ziren?
- b) Nola deskribatuko zenukete gurutzatuen mentalitate hura? Zein gisatako jendeak hartzen zuten parte?
- c) Nola zuzenesten ziren gerra haiek? Bidezkoak ote ziren, zure ustez?
- d) Historiako beste gertakari batzuetan "Gurutzada" hitza erabili denean, zer esan nahi izan da horrekin?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Agiri historiko oso interesgarria dugu hau. Botere politikoaren legitimazioaz dihardu; Eliza eta be-ronen autoritatea ere defendatzen ditu. Eliza eta Inperioaren arteko eztabaida hau, Elizaren alde konpondu zen Erdi Aroan. Ondoren, aginpide politi-ko laikoa monarkia agintezalearekin egingo da Eli-zatik independente, hau da, XIV. mendetik aurrera.

"Kristoren Bikarioaren agintepetik alde egin nahian dabilena (...) Kristoren beraren agintearen kontra dabil. Erregeen erregeak gu ipini gaitu lurgainean haren mandatari unibertsaltzat eta bote-re osoa eskuratu digu, apostoluen printzeari eta guri emanez nor-nahi zernahitatik jaregitea eta lotzea (...). Erromako pontifizeak edozein kristauren gain egikari dezake bere ahalmen pontifikala, hala egokituz bederen (...) eta arrazoi handiagoarekin bekatua tartean denean. Gobernu temporalaren boterea ez dago Elizatik kan-po egikaritzerik, Elizatik kanpo Jainkoak ez du botererik jarri eta (...).

Aulki Santuak Inperioaren subiranotasuna Konstantinorengandik jaso duela uste dutenek, ez dute buru-zorroztasunik eta ez dakite gauzen sorbururaino iristen, ba, jakina denez, Konstantino baino lehenagotik baseukan, izan ere, Elizak Inperio hau, berez eta pon-tentzialki. Jesukristo Gure Jauna, Jainkoaren seme, benetako gizon eta benetako Jainko, eta Melkisedek-en ordenaren arabera benetako errege eta benetako apaiz zenak (...) monarkia bat ezarri zuen Aulki Santuaren onuratan, monarkia pontifikala ezezik erregezkoa ere bazena: Pedro dohatsuari eta haren ondorengoei eman zien Inpe-rioaren aginpidea bai lurreko gauzera eta bai zerukoena, giltzen aristasunak adierasten duen bezala. Kristoren Bikario denez, bere aginpidea egikaritzeko ahalmena jaso du, bai lur gainean munduko gauzatan, eta bai zeruan ispirituzko gauzatan".

*(INOZENTZIO IV.aren BULDA.
Federiko II.aren aurka)*

Inozentzio IV. (1195-1254), 1243an aukeratu zuten Aita Santutzat. Aitasantualdi honetan, Erroma eta Inperioa gatazka gaiztoan borrokatu ziren, bata bestearen aurka: Aita Santua ez zen, lehenago adiskide izan-dako Enperadorearen aurrean samurtu. Elizaren boterearen defentsan pen-tsamendu egin bat eraiki zuen.

Elizaren eta Estatuaren arteko botere-borroka honetaz, ikus "Historia/1" liburuan 207-208. orr., eta "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 19, 28, 36-37, 104-106, 131-133, 235-236, 244-247, 250-251, 253, 263-264, 284-288, 301-302. Orobat, "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 207-215. orr.

EGJTEKOAK

- a) Goian aipatzen diren liburu eta orrialdeetako pasarteak bana ikasleon artean, eta eztabaida elkarrekin, agertzen diren ideia eta egoera kontrajarriak.
- b) Bi botereen arteko moldaera berezi bat aditzera emateko "teokrazia" erabili izan da: Zer esan nahi du horrek?
- c) Emango al zenuke grafiko batean, marraztuta, botere-banaketa zer pentsatzen zuen Inozentzio 4.ak?

ERANTZUTEKOAK

- a) Eman lerro batzutan agiri honen ideia nagusia.
- b) Ideia honen defentsan zenbait argumentu erabiltzen du: Zeintzuk dira?
- c) Teokrazia kristaua, nola edo zein zirkunstantzian sortu zen?
- d) Boterearen legitimazioaz hitz egin izan da: Zer esango zenuke horretaz, "Historia/1" eta "Mendez Mende"koak ikusi ondoren?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Alfontso Jakitunaren "Partidak" izeneko lege-kodean bildutako pasarte bat dakargu hona. Agirian aztertzen dena, "Erregeen" izaera da: Erregea Jainkoaren ordezkaria denez, bera da Erreinuaren buru, eta, ondorioz, Erreinuko gizon guztiek zor dizkiote obediencia eta zerbitzua, Jainkoak ezarri dizkion betebeharrak gauzatu ahal izateko.

"Jainkoaren bikario dira erregeak, bakoitza bere Erreinuari, lur-reko gauzei dagokienez, jendeak justizian eta egian edukitzeko guztien gain jarriak, Enperadorea bere Inperioan dagoen bezalaxe. Bi modutara frogatsen da hau konplutuki. Lehenengoa ispirituala da, Profetek eta Santuek erakutsi zutena. Eta horiei gure Jaunak eman zien gauzak ziur jakiteko eta aditzera emateko grazia. Bigarrena naturaren araberakoa da, gauzak naturalki ezagutu zituzten gizon jakintsuek erakutsi zutena. Eta Santuek esan zuten, ezen Erregea Jainkoaren ordez dagoela lurrean jarria justizia egikaritzeko eta nori bere eskubidea emateko. Eta horregatik herriaren bihotz eta arima deitu zuten. Zeren gizonaren bihotzean arima dagoen bezala, eta gorputza horren bidez bizi eta mantentzen den bezala, horrelaxe dago Erregeagan justizia, hauxe bait da Erregearen Jauerriko herriaren bizitza eta mantenimendua. Eta berebat, bihotza bakarria denez, eta beste gorputz-atal guztiek ere, gorputz bat egiteko, batasuna hortik hartzen dutenez, horrelaxe jasotzen dute Erreinuko guztiek ere, nahiz eta asko izan; zeren eta Erregea bakarria da, eta bakarria izatekoa bait da, horregatik behar dute denek bat izan Erregearekin, hura zerbitzeko eta laguntzeko egin behar dituen gauzetan. Eta esan ere egin zuten, noski, jakintsuek, ezen Erregea zela Erreinuaren burua, eta nola burutik jaiotzen diren gorputz-atal guztiei eragiten dieten zentzumenak, horrelaxe behar dute Erregearengandik sortzen den mandatuaren arabera ibili eta harekin akordio bat egin, hura bait da Erreinuko guztien Jaun eta buru, hari obeditzeko eta Erreinuari babestu eta gorde eta zabalitzeko: zeren hura da Erreinuaren arima eta buru eta haiek haren gorputz-atal".

(ALFONTSO JAKITUNA: Partidas)

Alfontso Jakituna (1221-1284) Toledon jaio zen, eta Sevillan hil. Gaztela-Leon Erresumako erregea izan zen. Erreinuaren antolamendu politikoan ez zuen parte handirik izan; baina Espainiako Historian ahaztu ezinezko kultur betekizuna izan zuen: bera izan zen, adibidez, gaztelaniako prosaren sortzailea eta Histori zientziaren berritzailea. Eta zientzietan eta zuzenbidean gidaritza gotorra izan zuen.

Espainiako Histori liburuetan, entziklopedia eta abarretan bil
Alfontso Jakitunari buruzko argibideak. Edota Partidei buruzko zerbait.

EGJTEKOAK

- a) Informazioa bildu baduzu, idatz Alfontso Jakitunaren biografiaren datu interesgarrienak.
- b) "Zazpi Partidak" obraren zehaztasunak jaso: Nola dago osatuta? Zeintzuk dira obraren ezaugarriak?
- c) Begira, hiztegian, testuan agertzen zaizkizun hitz ezezagunak.
- d) Idatz testuaren ideia nagusienak, eta azpimarra esaldi argigarrienak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nor izan zen Alfontso Jakituna? Zein mendetan bizi izan zen?
- b) Zergatik kontsideratzen da errege garrantzitsua?
- c) Zer dira "Zazpi Partidak"?
- d) Zein arlo lantzen dute?
- e) Zeren adierazgarri da testuaren esanahi onokorra?
- f) Entzuten al da gaur egun erregegoaz honelako antzekorik?
- g) Zein da zure eritzia agiri honi buruz?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Ingalaterrako agiri ofizial baten aurrean gaude: "Gutun Bikaina" deitu diogu, hemen, latinez Carta Magna zeritzanari. Jaun-eskubideak mantendu eta segurtatzen zituen beronek. Nobleziak erregeari ezarritako kodea da, eta erret boterea mugatzeko asmoa du. Bestalde, Elizari onesten zion bere askatasuna, eta erreinuko baroinak erret zerga berrietatik babestu egiten zituen. Ingalaterrako askatasun demokratikoen sinbolo bihurtu da Carta Magna hau.

"Jon Lurgabeak Ingalaterra-ko Erregeak, bere menpekoei:

...Lehenengo, Jaungoikoaren izenean eta gutun honen bidez zera erabaki dugu: Ingalaterra-ko Elizak bere eskubide eta libertate guztiak mantentzen dituzala. Gure erreinu honetan ez da inolako zergarik ezarriko, guztion onarpenarekin izan ezik, edota erret pertsonaren jaregin-saritzat espada, gure seme zaharrena zaldun armatzeko edo alaba zaharrena lehenengo aldiz ezkontzeko salbu.

Londres-eko hiriak antzinako askatasun guztiak izango ditu, uretan nahiz lehorrean. Gainerako hiri, burgu eta herriskek, bost portuetako baroiek eta portu guztiek ere beren libertate guztiak eduki ditzatela nahi dugu.

...Ez da gizon librerik atxilotu edo preso eramango, ez eta inolaz ere legez kanpo jarri, erbestera edo molestatuko. Ez zaizkio bere ukantzak, edo libertateak kenduko. Ez dugu haren gainean eskurik ezarriko, eta ezar eraziko ere, ez bada norberaren kidekoen legezko judizio batek babestuta eta gure herrialdeko legearen arabera.

(...) Honako garantia hau eskaintzen diegu gure baroiei: Beren artean erreinuko 25 baroi aukeratu dituzte, berek nahi dituztenak, eta hauek, beren botere guztiaz baliatuz, hitzartutako libertate eta bakea mantenerazi behar dute". (CARTA MAGNA, 1215)

Joanes Lurraldegabeak (1199-1216) onartu zuen Gutun hau. Aita erregeren ondare-partiketan, lurralde gabe geratu zelako jaso zuen goitizen hori Joanes-ek (ingl.: "Lackland", alegia); baina anaia Errege hil zitzaionean (Rikardo Lehoi-Bihotz/Coeur de Lion) iritsi zen erretaulkira. Kontinentean, Frantziaren kontra, galdutako gerrak ere behartu zuen barne-politikan honelako Gutun hau onartzera.

Bila "Historia/1" liburuan agiri honi argibideak eman diezaizkioke-
ten langaiak: 184-191. orr., adibidez. Entziklopedietan ere bila Gutun
Bikainari (Carta Magna) buruzko albisteak.

EGJTEKOAK

- a) Marraztu mapa batean Ingalaterrako Erreinuak zituen lurraldeak (13. mendearren lehenengo herenekoak).
- b) Jadarik konturatu zarenez, Frantziako lurralde aritz Ingalaterrako erresumaren domeinuko ziren. Nola eta zergatik pasatu ziren lurralde horiek ingelesengana?
- c) Orduko mapan Frantziak Inperio bat zuen mugakide ekialdean. Zein Inperio zen?
- d) Komentatu "Historia/1"eko 187. orrialdeko marrazkia.
- e) Bila hiztegi entziklopedikoren batean, pertsonai hauen datu biografi-koak: Enrike 2.a, Rikardo 1.a, Oton 4.a, Joanes 1.a, Felipe 2.a.

ERANTZUTEKOAK

- a) Joanes 1.ak borondatez eman ote zuen Gutun Bikaina?
- b) Monarkiak eta errege feudalak boteretsu eta egonkorrak ote ziren? Zer diozu?
- c) Eliza, erakunde boteretsua zela ematen du: zertan oinarritzen zen Elizaren botere hori?
- d) Gutuna "Jainkoaren Izenean" emanda dago. Zergatik hasten ziren orduko agiri guztiak era berdinean?
- e) Londres-eko hiriak antzinako askatasunak birreskuratu behar zituela esatean, zein askatasun-motaz ari da?
- f) Inolako zergarik ez dela ezarriko esaten da, baina badira salbuespen batzuk. Zeintzuk?
- g) Nuri zegokion lege-ordenamendu hura manteneraztea?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Goiz Erdi Aroan Feudalismoarantz bideratzen den bilakaera betetzen ari da. Nekazaltze-prozesua, Erromatar Inperioak ezagutu zuen krisialditik hasitako fenomeno da, baina garai honetan burutzen da. Merkatal harremanak zeharo urritu dira; norberak produzituko ditu beharrezko dituenak. Ekonomi gune autarkikoak agertzen dira, beraz. Hauen artekoak ditugu monastegiak, beren abatetxe eta inguruko lur-sailekin.

"Ondare handien kudeaketaren ikuspegi-tako bat zen, alegia, artikululu ezberdinak produzitzeko egokiak ziren lurraldeetan nahi izaten zituztela lursailak edo ustiategiak eskuratu edo lortu; horrela esplikatzen dira abatetxe handien jabetza-lur sakabana-tuak. Egotez iparraldeko lurraldeetan zeuden abatetxeok fundaturik, baina kontzesio-bidez sailak eskuratzen zituzten ardo-lurretan; eta horrela gatzagak eta sailak lortu zituzten erregeengandik ehiza edo arrantza askoko eskualdeetan, edo ganadu-lurretan, beren jabari zentrala horrelako elementurik gabeko eskualdeetan zabal-tzen zen bitartean.

Saint-Denis-eko abatetxeak, esate baterako, jabari-lur handiak zituen Probenza bere olio-beharrak hornitzen zituztenak, ardoa Sena-inguruetatik ateratzen zuen, arraina Rouen eta Ponthieu-tik, eta ilekia eta gasta Flandes ingurutik.

Ardura honek gustiak adierasten du, segurtasun-falta eta urduritasuna zegoela, bertan aurkitzen ez ziren produktuak aisa inguratu ahal izateko; soluzioa, berriz, zen, gausok norberak produzitzea eta horiek garraiatzeko ardura ere norberak hartzea, horrela segurtatuko zen, jeneroa behar zen garaian ailegatzeko. Eta hala, abatetxe handiek eta kapituluak hornimendu-problema erabakitzeko erabili zuten bidea izan zen, kontzesio-bidez boterearengandik ehiza- eta arrantza-eskubideak eskuratzea, sarritan, oso urrutit zeuden eskualdeetan. Adibidez, Treveri eta Koloniako Gotzainek, Saint-Quintin-eko kapituluak eta Werden-eko komentuek elkarren artean banatzen zituzten Frisia-ko ehiza- eta arrantza-eskubi-deak".
(R. DOEHAERD, 1984)

Renée Doehaerd, historikaria belgiarra da, eta Bruselako Unibertsitatean irakaslea izan da. Lehen Erdi Aroko ekonomiaren historiaz arduratu da bereziki, eta aro hartaz ikuspegi honetatik begiratuta egindako liburu eroso bat eskaini digu: "Le Haut Moyen Age occidental: économies et sociétés" (Parise. Gaztelaniaz: Labor, Barcelona).

"Historia/1" liburutik ez zaizu gaizki etorriko bosgarren atala irakurtzea, 178-191. orrialdeak batez ere.

EGJTEKOAK

- a) Koka ezazu, mapa batean, Saint-Denis monastegia. Bertara eramaten ziren produktuen jatorriak eta berorien nondik norakoak adieraz.
- b) "Autarkia" kontzeptua hiztegieta bilatu ondoren, eztabaida ezazue, taldean, berorren esanahia eta antolamenduaren zentzua.
- c) Monastegietan ezagutzen den autarkia ezin uler liteke aurreko erreforma monakala kontuan hartu gabe. Zeintzuk dira erreforma horiek, noizkoak eta zer proposatzen zuten?
- d) Monastegi bateko ekonomia autarkikoak beharrezkoak zituen eraikin, lur-sail eta ustiategi ezberdinak aztertu. (Baliozko adibideak dituzu Saint-Denis edo/eta Saint-Gall-eko kasuak, besteen artean).

ERANTZUTEKOAK

- a) Monastegi berri bat eraikitzean kontuan izaten zituzten lekuko lurren ezaugarriak: emankortasuna, ura edukitzea, lautada eta bide edo erreka batetik gertu egotea, etab.? zergatik?
- b) Zeintzuk izango lirateke garai hartan ustiatagirik baliozkoenak?
- c) Dieta aberatsa izango zuten Saint-Denis-en, testu horren arabera? Herriko jendea ere halatsu bizi ote zen?
- d) "Segurtasun-falta eta urduritasuna" aipatzen ditu testuak. Zergatik?
- e) Elizen eta botere politikoen artean, zer moduzko harremanak zuden? Nola deskribatuko zenituzke?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

V-X. mend.

Latifundioen produkzioaren berezitasun batzuk deskribatzen dizkigu testu honek, haien buruaskitasuna (autosufizientzia) azpimarratuz. Horrekin batera, R. Doehaerd-ek sistemaren beste ezaugarri bat ere gogoratzen digu, berorren produktibitate eskasa. Garrantzizko arazoa zen hau ekonomia haren barnean.

"Latifundioak produzitzen zituen, beraz, jan-edariak, zerbitzuak, lehengaiak eta produktu manufakturatuek, eta produzitu ere luraren emankortasunaren, luraren hedaduraren eta bertan laborantzian eta ganadularitzan aritzen zen giza kopuruaren arabera. Gainera latifundioak bide ematen zuen, artisau espezializatua edukitzeko eta hauei etxea eta lur-puska bana emateko, bizitzeko behar zutena doi-doi atera zezaten. Beren lan-zatirik handiena ofizio baten egikaritzan ematen zuten arren, nagusiaren premien zerbitzuan aritzen ziren maizter bezala eta nagusiaren kolono eta arrotzen zerbitzuan ere bai lansari baten truke. (...).

Horrela, ba, nekazariak berek segurtatzen zituzten produkzio industrialak eta hainbat eratako zerbitzuak --hala nola garraioak, mezularitza, merkataritza, ehiza eta arrantza-- Goi Erdi Aroko nekazari-komunitateen barruan.

Azpimarratu beharra dago, egoera honek gizarte hortako ekonomi sistemaren esentzia bera adierazten duela, hits hauetan edo labur daitekeena: laborantzak gutxi produzitzen zuen, hartara aplikatzen zen energia ere murrizta zen eta". (R. DOEHAERD, 1984)

Renée Doehaerd, historilaria belgiarra da, eta Bruselako Unibertsitatean irakaslea izan da. Lehen Erdi Aroko ekonomiaren historiaz arduratu da bereziki, eta aro hartaz ikuspegi honetatik begiratuta egindako liburu eroso bat eskaini digu: "Le Haut Moyen Age occidental: économies et sociétés" (Parise. Gaztelaniaz: Labor, Barcelona).

Agiri honen testuinguru historikoa zerbait ezagutu ahal izateko, lagungarri gerta liteke "Historia/1"ean esaten dena: ikus 178-191. orrialdeak.

EGJTEKOAK

- a) Deskriba marrazki batean, latifundio baten eraketa eta antolomendua: horretarako erabil "Historia/1"eko marrazkia (184. or.) eta agiri honetako datuak.
- b) Egin, irakaslearen laguntzarekin, Goiz Endi Aroko ardatz kronologiko bat, feudalismoa bereziki indartzen lagunduko duten gertakiaerak azpimarratuz.
- c) Bila Europako feudalismoaren adibide nagusienen kokalekuak, eta eman mapa batean.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zein da ekonomi sistema honen oinarria? Harrigarria al da hori?
- b) Deskribatzen den sistema honek, produktibitate handia ote zuen? Zergatik?
- c) Merkataritzak bai al du tokirik sistema honetan? Azter ezazu arazoa, eta erantzunaren arrazoiak.
- d) Zer da ekonomia autarkikoa?
- e) Zergatik iritsi zen Europa egoera horretara?
- f) Latifundioa, Jaungoa: azaldu elkarrekin dituzten zerikusiak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Berant Erdi Aroko erreboltak, motzak baina bortitzak izan ziren. Frantzia eta Ingalaterrako hirietan bizilagunak behin baino gehiagotan erreboltatu ziren erregeek Ehun Urteko Gerratearen finantzaketari eusteko, behin eta berriz ezartzen zituzten zerga-zama astindu nahiz. Frantzian, "Jacquerie" izena hartzen duten matxinada hauek: batez ere nekazarien altxamenduak ziren, baina merkatariak ere bazuten parterik.

"Nafarroako erregea askatu eta berehala errebolta handia sortu zen Frantsiako hainbat bazterretan (...). Herrisketako jendeak bildu egin ziren, hasieran ez ziren ehundik gora. Esaten zuten, Frantsiako noble guztiak, zaldunak eta eskutariak traidoreak zirela erreinuarentzat eta beraz mesedegarri zatekeela haiek garbitzea (...).

Gero, beste akordiorik gabe eta makila burdinastatuak eta labanak beste armarik gabe, han inguruan bizi zen zaldun baten etxera abiatu ziren. Sartu ziren etxean, hil zuten zalduna, haren andrea eta haurrak, txikiak eta handiak, eta su eman zioten etxeari (...).

Beste horrenbeste egin zuten gastelu eta etxe-on batsuetan ere. Asaldatuak, geroz eta gehiago, sei mila izatera iritsi ziren. Igarotzen ziren leku gustietan gehitu egiten zen haien kopurua, beren izantsako jende-moduak elkartzen zitzaizkien eta; zaldun eta eskutariak, berriz, beren etxeak abandonatzen zituzten, andre eta umeekin. Emazteak, gazteak eta umeak hamar edo hogei legoataraino eramaten zituzten, etxetik urruti, beren etxeak tresneria osoa barruan zutela utsita. Eta jendilaje gaizto honek, buruzagirik eta armarik gabe, dena lapurtzen eta txikitzen zuen; errukirik eta barkamenik gabe garbitzen zituzten noble guztiak, damak eta neska gazteak bortxatu egiten zituzten, sakur amorratu bezala (...).

(Mendekurako deitutako) atzerritarrek herrialdeko nobleekin elkartu ziren. Eta erruki gabe hasi ziren jende horiek hiltzen eta porrokatzen, eta samaldaka arboletatik zintzilika urkatzen. Nafarroako erregeak berak, hiru mila garbitu zituen egun bakarrean Clermont inguruan. (...)" (J. FROISSART, 1370 eta hurr.)

J. Froissart, kronista frantsesa da (c. 1337-c. 1404). Elizgizon ilustratua eta noblea, Gortean, Ingalaterrako erreginarene idazkaria izan zen, eta 1248.az geroztik Chimay-ko kalonjea. Hemen idatzi zituen, Europan 1325-1400 urteetan gertatutako albisteak: "Kronikak". Informazio ugaria eta xehe betea ematen du. Dena den, bere nobletasunak baldintzazuta ari da, eta ez da bilatu behar Froissart-engan gizarte osoaren deskribapen orokorrik.

XIV. mendeko krisialdiaz "Historia-1" liburuan, 201. orrialdean aurkituko duzu zerbait. Testuinguru historikoa gehiago ezagutzeko, azter liburu bereko hamaseigarren ikasgaia, 192-200 orrialdeetan.

EGJTEKOAK

- a) Berant Erdi Aroko gerrateak eta gatazka sozialak isladatuko dituen mapa bat egin ezazu. Atlas historiko batez balia zaitezke horretarako.
- b) Erdi Aroko historia eskematikoki ikusteko, egizu Aro honi dagokion ardatz kronologikoa: eman bertan, mendeetan zehar bereiz daitezkeen bilakaera sozio-ekonomikoaren gorabeherak (urterik garrantzitsuenak).
- c) Aurreko puntuari lotuz, adieraz lauki batean bilakaera horren arazoak. Erdi Aroko historia kontsultatu beharko duzu.
- d) Filme hauek ikus daitezke: "Zazpigarren sigilua" (El séptimo sello) edo "Amodio- eta heriotzezko pasealdia" (Paseo por el amor y la muerte).

ERANTZUTEKOAK

- a) Nortzuk izan ziren "Jacquerie"aren aintzindariak?
- b) Nola ekin zuten, eta zeintzuk izan ziren kausak, Froissart-en ustez?
- c) Erregearen kronista batek, bere garaiko gertaerak objektiboki azter ditzakeela uste al duzu? Eman erantzunaren arrazoiak.
- d) Zeintzuk izan ote ziren errebolten benetako arrazoiak? Feudalismoetik datorren serbuen egoera, berrikustea komeniko da mugimendu hauek ulertzeko.
- e) Dokumentuan aipatzen denaren arabera, garai honetan erregeek armada ofizialik bai al zuten? Zer deritzozu?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

XII. mend.

Le Goff historilariarena da hau, eta Zistertarren Ordenaz dihardu. 1098.ean, Dijon ondoan, Robert de Molesmes-ek sortutako Ordena berri honek, ohitura latz eta nekezaleak zituen, Cluny abatetxearen aberastasun eta bizi-erosotasunak baztertzuz. Monastegiak leku bakartietan jasotzen ziren, nahiz eta monjeak, oso maiz, herriz herri ibili, prediku eta apostolutzan.

"Baina Cîteaux-eko lorpena da batez ere handia. Dijon ondoan eta 1098an sortu zuen hori Robert de Molesmes-ek, eta geratuezina izan zen horren gorakada burgundiar noble gaste bat, San Bernardo, bertan sartu zenetik aurrera. Cîteaux-eko lau umek, hau da, La Ferté, Pontigny, Morrimond eta Clavaux-ek (hau, Bernardok 1115ean eraikia) Cîteaux-en bilobak sortuko dituzte Kristandade gustian. San Bernardo hiltzean, 1154ean, 350 dira abatetxe zistertarrak, eta 530 mendearen bukaeran.

Ordena berri hauen gustien esaugarri ohitura latz eta nekezaleak edukitzea da: janzkera eta mantenu sinplea erabiltzea, ariketa aszetikoak egitea, isiltasuna gordetzea, eskulana egitea. Monastegiak bakardadean jasotzen dira, baina monjeak, abateak batipat, oso maiz ibiltzen ziren bideginean, predikatzeko edo apostolutzan aritzeko. Honela, San Bernardok, etengabe mendi eta ibarretan zehar, Kristandadeko arazo gustietan hartzen zuen parte; zismatikoek eta heretikoek kontra borrokatzen zen eta Gurutzada predikatsen zuen. Zisterrak 14 Kardinalak eta 75 gotzain eman zizkion Elizari XII. mendean".

(J. LE GOFF, 1977)

Jacques Le Goff historilari frantsesa da (Toulon, 1924), Mendebaldeko Erdi Aroko antropologia historikoan espezializatua. Pariseko Goren Ikasketak-Eskola Praktikoan zuzendaria izan da; baina lehenago Praga, Oxford eta Erroman egin zituen ikasketak eta ikerlanak, ondoren Lille-n irakasteko. Erdiarolaria da, eta "Annales" deitu taldekoa.

Hemen aipatzen direnak testuinguru orokorrean ulertu ahal izateko, ongi etorriko zaizkizu "Historia/1" esaten direnak: 178-203. orr. "Artearen Historia/1"ean ere baduzu zer ikusi: 172-197, 200-208, eta abarretan.

EGITEKOAK

- a) Adieraz, Europaren mapa batean, 12.eko monastegi zistertarrak. Egin beste hainbeste Euskal Herrian ditugun zistertarren etxeekin.
- b) Inudika marrazki batean monastegi zistertar batek dituen dependentziak: Eliza, klaustroa, gela kapitularra, logelak, sukaldea, iturria, landak, etab.
- c) Bila itzazu Robert de Molesmes-en bizitzako datu batzuk.
- d) San Bernardo monje zistertar famatuaren bizitzako datu biografikoak bil itzazu, biografia txiki bat eginez.
- e) Frantziako mapa batean adieraz Citeaux eta Clairvaux.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zeintzuk dira monje zistertarren ezaugarri garrantzitsuenak? Zergatik dira bizimodu hain latzekoak?
- b) Esan arkitektur, eskultur eta pintur arloetan monastegi zistertarrek dituzten ezaugarri orokorrak. Eman adibideak.
- c) Arkitekturaz zeintzuk dira Citeaux eta Clairvaux-ko monastegien arteko ezberdintasunak? Euskal Herrian zein monastegi dira Citeaux-ko estilo-koak? Zeintzuk Clairvaux-ko estilo-koak?
- d) Zer ziren Gurutzadak? Monjek, zergatik bultzatzen zuten kristau-herria Gurutzadetara?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

IX-X. mend.

Testuaren autoreak, ideia nagusi bat azaltzen digu: monastegiek benetako garrantzi ekonomikoa izan zuten. Bestalde, teknikak gorde eta, geroxeago, asmatu ere egin zituzten: Zisterrak zerikusirik franko izan zuen, adibidez, alde honetatik ere. Horrela, historiaren bilakaeran, monastegiek betekizun sozio-tekniko behinena izan zuten.

"Poliptiko karolingiarrek ia beti adierazi ohi dutenez, bazen langile-jende espezializatu bat, abatetxe handietako eraikinen babespean zegoena. Esate baterako, 822an Adhaldard abatak zioenez, Corbie-ko abatetxean lan egiten zutenen artean bai omen ziren bi jostun, zurratzaile bat, sei erremintari, bi orfebre, bi armagile, eskutuak egiten zituztenak; pergamingile bat, bi zapatari, hiru metal-urtsaile, lau arotz eta lau igeltsero; bi medikuren zerbitzuak ere bazituen erakundeak. Wallak, Bobbio-ko monastegiko abatak (834-836), bere abatetxeko errenta eta zerbitzuei buruz idatzitako poliptiko batean esaten du, ezen ganbarari nagusiaren ardura zela monjeei arropak, oinetakoak eta eskularruak banatzea, eta berak administratzen eta gidatzen zuela larruginen, zapatarien eta jostunen lana, hauek lanerako behar zituzten lehen gaiez hornituz. Beste kargudun bat, ganbarari bigarrena, arduratzen zen erremintari, eskutugile, abere-tresnagile, tornulari, pergamingile eta labangileei materialak hornitzen eta berak banatzen zituen burdinazko tresnak. Prebosteak gainbegiratzen eta gobernatzeko zituen gainerako artisauek. Arotz-buruak gidatzen zituen arotzen lanak, berak saintzen eta banatzen zituen harriak eta egurrak, eta arotzek upelak eta armarioak egiten zituzten, eta errotak, etreak eta hormak jasotzen. Saint-Denis-eko abatetxean 862an egin zen errenta-partiketean (repartitio) upelak egiten zituzten arotzak aipatzen dira eta 'villae' ezberdinetako tolaiek konpontzen zituzten langileak. X. mendean eta San Gall-eko abatetxearen berri-tze-proiektu batean esaten da, lokalak aurrikusi zirela zapatari, abere-tresnagile, orfebre, eskutu- eta espatagile, tornulari, prestatzaile, orfebre, erremintari, zurratzaile, upelgile eta abarrentzako".

(R. DOEHAERD, 1984)

Renée Doehaerd, historilarisa belgiarra da, eta Bruselako Unibertsitatean irakaslea izan da. Lehen Erdi Aroko ekonomiaren historiaz arduratu da bereziki, eta aro hartaz ikuspegi honetatik begiratuta egindako liburu eroso bat eskaini digu: "Le Haut Moyen Age occidental: économies et sociétés" (Parise. Gaztelaniaz: Labor, Barcelona).

Hemen aipatzen direnei testuinguru orokorra emateko begira "Historia/1"ean aditzera ematen direnak: 178-203. orr. Interesgarriak dituzu, gainera, "Artearen Historia/1"ean ikus ditzakezunak: 172-197, 200-208, 229-235. orr.

EGITEKOAK

- a) Endi Anoko monastegi baten oinplanoa egin, eta zati bakoitzaren erabilerara adieraz. Entziklopedietan baduzu langai lagungaririk.
- b) Europako mapa batean 11. mendeko monastegi famatuena jar itzazu.
- c) Lauki batean eman monastegi batean izan zezaketen egun arrunt bateko ordutegia (San Benito-ren Arautegia ikus. Edota Lazkao edo Estibalitzeko Monastegietara dei egin, behar duzuna galdetuz).

ERANTZUTZEKOAK

- a) Testuan azaltzen diren lanbideak aipa.
- b) Horiek ote ziren bakarrik? Horrez gain imajina ditzakezun guztiak aipa.
- c) Monastegietan egiten al ziren bakarrik horrelako lanak? Eta zergatik?
- d) Egoera hori noiztik aldatu zen?
- e) Lanbide hauek, monastegietan egiten zirelako gorde ote ziren? Zer gehiago gorde zen monastegiei esker?

Fitxa honetatik Hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

VII-X. mend.

Pasartea, kolonuen hamarrenaz mintzatzen da: Goiz Erdi Aroan, kolonuek lurjabedunarekiko zuten obligazio bat "hamarrenak" ordaintzea zen. Mende eta toki ezberdinen arabera, nola bilakatu zen ordainketa-modu hau aztertzen du, hain zuzen ere, autoreak. Ordainkizun honen analisisian herri xumearen bizimodu-baldintzak ere ikus daitezke.

"Ustaren hamarrena bezalako portzentai bat tenente libreak espezietzeko karga bezala pagatzea normala zen.

Bizantziarren garaiko (VIII. mendeko) nekazal legeek agintzen zuten, gasailaren usta-hamarrena jasotzeko eskubidea zuela lurjabeak; proportzio hau eskualde alamandarrean ageri da testigaturik VII. mende-bukaeran, eta X. mendean Reims-eko Saint-Rémy-ko lurretan eta Rabena-ko inguruan. Badirudi Ekialde eta Mendebaldean berdina zen nekazal tradizio-multzo berekoa zela hau.

Hala ere, poliptiko karolingiarrik gehienetan kolonuen kanonak ez dira aurkesten ustaren hainbateko bezala eta bai karga finko gisa, zeina askoz ere gogorrago baitzen kolonua rentzat, ustan biltzen zena kontutan hartzen ez zelako. Gai berarekin jarraituz esango dugu X. mende-hasieratan Brescia-ko abatetxeko kolonuek kanon biziro handiak ordaintzen zituztela, eta, gari-ardoei dago kienez, adskribizioko serbuenekin parekatsen zirela, zeintzu iristen bait ziren alearen kasuan lautatik bat edo hirutatik bat izatera, eta ardoaren kasuan hirutatik bat edo erdi bat izatera. Honek, berriz, aurreko mendeetan indarrean zeuden karga-moduekin konparatuz egoera-txartze nabari baten seinale dela dirudi".

(R. DOEHAERD, 1984)

Renée Doehaerd, historilarisa belgiarra da, eta Bruselako Unibertsitatean irakaslea izan da. Lehen Erdi Aroko ekonomiaren historiari arduratu da bereziki, eta aro hartaz ikuspegi honetatik begiratuta egindako liburu eroso bat eskaini digu: "Le Haut Moyen Age occidental: économies et sociétés" (Parise. Gaztelaniaz: Labor, Barcelona).

"Historia-1" liburuan kolonutzari buruzko informazioa "Erromaren Eroraldia" atalean topa dezakezu: 142-146. orrialdeetan. Karlomagnoen Inperioaz ik. 157-158, eta Feudalismoaz 182-188. orr. Horren osagarriak izan litezke 178-180, 182-185. orrialdeetakoak.

EGITEKOAK

- a) Begira, entziklopediaren batean, testuan ageri diren hitz hauen esanahia: tenente, alaman(darra), poliptikoa, karolingioa, kolonua, serbua, hamarrena.
- b) Testuliburuaren eta Entziklopediaren baten laguntzaz idatz laburki kolonuez eta serbuez: sorrera, bilakaera, mota ezberdinak.
- c) Testuan aipaturiko hiri eta herrialdeak koka mapan.
- d) Idatz testuaren laburpena, ideia nagusiak jasoz.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer ziren hamarrenak? Noiztik aplikatu ziren?
- b) Zer ziren poliptikoak?
- c) Bereiz kolonua eta serbua, berorien arteko alde berdina eta diferentziak agirian jarri.
- d) Zer esan nahi du "adskribizioa serbu" horrek? Noiz arte iraun zuten? Zeintzu ziren beren betekizunak?
- e) Zergatik dio testuak mendeetan zehar egoera txartu egin zela?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

IX-X. mend.

Agiri hau, azoka nahiz feriei buruzko gogoeta historiko bat da. Frankoen Inperioko ekialdeko erresumatik dinastia karolingiarra desagertu zenean saxoniar dinastiako enperadoreek okupatu zuten erretaulkia (919-1024). Aldakuntza honekin, aldi-berean, Europako ekonomia indarberritu egin zen.

"Azoka edo feriak jartzeko emakida-gutun askoren arrazoa xede fiskal batean bilatu behar da inondik ere: alegia errentak lortu nahi ziren horien onuradunentzat --gotzain pobre edo abat gutxidunentzat-- hauei beren egoera berriro martxan jartzeko laguntzeko itzaropenarekin. Baina, hala ere, ez zen emakidarik egingo, uste izan ez balitz, harremanak gero eta gehiago egiten ari zirela eta gehikuntza hori erregulartasun bat hartzen ari zela nabariki. Arrazoi honek bultzatu zuen Oton I.a, hungariar inbasioen ondoren, Bergamo-ko elizari lagundu nahian sebilela, bertako gotsainari S. Sixto egunean urtean behingo azoka hirian egiteko eta Monasteriolo-n portu bat eraikitzeke baimena ematera. Suntsitutako abate-txe baten kokaleku zahar bat zen Monasteriolo hau, eta uste zen, han lur hartuko zutela Veneziako untxiek eta Comacchio eta Ferrara-ko merkatarienek.

IX. mendean eta batipat X.ean, harremanetarako, asteroko azoka eta ferietarako leku publikoen ugaltzeak interpretazio-problema bat planteatzen du eta hipotesi ezberdinetarako eman du bide. Adibidez, esan izan da, intzidentzia handiagoa izan zuela horrek Germaniako lurraldean 'Francia Occidentalis'ekoan baino. Askenean, atera den konklusioa izan da, urbanizazio-prozesuarekin batera joan zela fenomeno hori Elba-z ekialdeko Europa aspigaratuan, eta handik hona esanahi guztia galtzen zuela ekonomi maila orokorrean. Hala ere kontutuan hartu behar dugu, ezen IX. eta X. mendeetan, Alemanian bezain ugariak izan zirela Italian azoka-irekitzeko eskubide-emateak".

(R. DOEHAERD, 1984)

Renée Doehaerd, historilaria belgiarra da, eta Bruselako Unibertsitatean irakaslea izan da. Lehen Erdi Aroko ekonomiaren historiaz arduratu da bereziki, eta aro hartaz ikuspegi honetatik begiratuta egindako liburu eroso bat eskaini digu: "Le Haut Moyen Age occidental: économies et sociétés" (Parise. Gaztelaniaz: Labor, Barcelona).

"Historia 1" liburuan, 15. ikasgaiari, feudalismoari buruz nahikoa material bil dezakezu, baita 16. ikasgaiari ere. Merkatalgoaren indartzeaz eta ferien bilakaeraz: ik. 194-196. orrialdeak.

EGITEKOAK

- a) Hiztegi egoki batean bildu berri gehiago feriaz eta azokaz.
- b) Zure hirian bertan (edo zure hiritik gertu) feriarik edo/eta asteroko azokarik ospatzen al da? Saia zaitez beronen historiaz eta jatorriaz argibideak bilatzen (Udal-artxiboko arduradun batengana jo dezakezu).
- c) Egin mapa bat, eta bertan marraztu Inperio Germaniarren mugak, hiri-guneak eta merkatal bideak. Koka, dagozkien lekuetan agiriak aipatzen dituen hiriak.
- d) Inbasio hungariarra aipatzen da. Eman zehaztasun gehiago horri buruz.
- e) Zer dakizu Oton 1.az?

ERANTZUTERAKOAK

- a) Norik fundatu zituen feria eta azoka berriak?
- b) Ferien sorreraren esplikabide bezala, zein arrazoi aipatu ohi dira?
- c) Ea, lerro gutxitan, feria eta hiri-azokaren funtzioa laburtzen duzun.
- d) Azoka berrien fenomeno hura indar beretsuz zabaldu al zen Europa osora? Non gehiago?
- e) Nola laburtuko zenuke azken parrafoak diena?
- f) Elizari emandako abantail ekonomiko horien truke Enperdoreak konpentsazio politikorik jaso ote zezakeen, gero?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

IX-XI. mend.

Inperio Erromatarrean hiriak izan ziren ekonomi guneak, baina Inperioa desagertzean baserritartu egin zen ekonomia: landetara pasatu zen bizitza ekonomikoa. Goiz Erdi Aroan, ordea, hirien fenomeno berpiztu egin zen, eta burguak sortu. Hauek zentru ekonomiko bihurtu ziren, gainera. Baina aldakuntzak ez ziren ekonomian bakarrik gertatu; gizarte osoan --politikan, kulturen eta abarretan ere-- ondorio garrantzitsuak ekarri zituzten burguen sorrerak.

"Hautuan dugun garai honen esaugarrietako bat hirien eboluzio bizi da, nahiz eta hauen jatorriak askoz ere zaharragoak izan. Baina fase honetako gausarik tipikoena, kasik estanda gisan burguak izan zuen garapena da. (...).

Handiaurkiro esanda, auzo bat izaten zen, jeneralean, arrazoi ekonomikoengatik eraikitakoa. Batsutan 'civitas'aren barruan sortzen zen 'burgus' a; baina, maizago, gastelu gotor, 'civitas' edo abatetxe baten hurbilean egon ohi zen. Beste batsutan, ez hain maiz, eskualde landatar batean erdian altxatzen zen burgua. (...).

Baina eta zer da, ordea, funtsean 'burgus' hori? Hainbat dira aspaldidanik horren definizio egoki bat lortzen saiatu direnak. Gausa jakina da, espezializazio handiko artisauak bizi ohi zirela burguetan, landatarra ez den edozein gizartetan ezinbestekoak bait dira. Baina batez ere bidedendariak ('mercatores transeuntes', 'mercatores cursarii') bizi izaten ziren bertan, hau da, burguan bizileku finkorik ez zuten merkatariak. Bestalde, beti bertan bizi ziren merkatari finkoak ere baziren. Sarritan, diruarekin edo metalt ederrekin lanbidez komertziatzen zuten pertsonak bizi ohi ziren burguan: hala nola, orfebrea, diru-trukalariak, interes altuko mailegu-emaileak (lanbide modu hau lukurreriatzat jotzen zen orduan). Baina judutarrak ere baziren burguetan, eta interes-kontutan eliz debekuekin itzurika ibili beharrik ez zeukaten, kristauak bezala, zeren kristau ez zirenak debeku horretatik kanpo gelditzen bait ziren". (J. DHONT, 1978)

J. Dhont, Belgikako Gent-eko Unibertsitatean irakaslea izan da, eta erdiarolaria da. Goiz Erdi Aroaz eman duen historia soziala, sintesi ona da, Aro hura sakontzen hasteko: "La Alta Edad Media" tituluarekin argitaratu da gaztelaniaz Siglo XXI editorialean (ik. agiri onetarako 284-285. orr.).

"Historia/1" eta "Mendez Mendean" badago franko irudi, agiri honekin batera erabili ahal izateko. Adibidez, "Historia/1"ean ik. 179, 180, 184, 194. orr. eta horiekin kontrajarrita ikus litezke: "Mendez Mendean Aro Modernoa"koak 100-101, 102, 397, 421, 427. orr., eta "Mendez Mendean Aro Garaikidea"n 13, eta abar. Une hartako testuinguru orokorrerako, ik. "Historia/1"eko 193-198. orr.

EGITEKOAK

- a) Azter itzazu "hiritar eztanda" honen zergatiak.
- b) Fenomeno hiritarra ez da berria historian. Antzinetatik hasita Erdi Aroaraino azter arazoa (adibidez: "Historia/1"eko 96-98, 103, 111-113, 126-127, 145, etab.)
- c) Egizu "burgu" baten oin-plano hipotetikoa, egitura urbanistikoa eta banaketa soziala analizatuz.
- d) Penintsulan, Goiz Erdi Aroan, "burgu" berriak sortzen dira behar ezberdinei erantzunez. Zeintzu dira izango dituzten betekizunak?
- e) Euskal Herrian noiz garatu ziren hiribilduak: egin ardatz kronologiko bat, edo mapa bat.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Bidedendariak edo "mercatores transeuntes" deituak, zer dira?
- b) Zeintzuk bihurtu dira burgetan eta zergatik?
- c) Burgu batek, zein motatako funtzioak bete ditzake?
- d) "Lukurreria" zer da? Ondo ikusia al zegoen? Nortzuek praktika zezaketen?
- e) Zein aurrezki-atzizki eraman ohi zuten burgu berriek? (Bai gaztelaniaz, bai euskaraz).

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Etienne Boileau-k idatzi zuen "Ofizioen Liburua", eta Pariseko hileki-artisten arautegia ere ematen du bertan. Berant Erdiko Aroko gremio-arautegi jator bat izanik, gremioaren ekintza guztiak arautzen zituen, ofizio-lanbidea mugatuz, lan-baldintzak zehaztuz eta merkatalgoa ere erregulatuz.

"Parisen ez dauka inork ileki-ehule izaterik nola eta ofizioa erregeari erosten ez dion.

Ez ilekiaren eta ez bestelako zuntzen ezein ehulek praktika dezake ofizioa Pariseko arrabalen barruan, ofizioa norberak egikaritzen ez badu edota bera maisu baten umea ez bada.

Pariseko edozein ileki-ehulek eduki ditzake bere etxean bi ehundegi zabal eta estu bat.

Ileki-ehule maisuren ume bakoitzak, andrerik ez badu eta inoiz izan ez badu, bi ehundegi zabal eta estu bat eduki ditzake bere aitaren etxean, lana bere eskuz egiten badu.

Ehule maisuak ez dauka aipatu ehundegiok bere etxetik kanpora jarrita edukitserik.

Ehule bakoitzak ikastun bakarra eduki dezake etxean.

Champagne-ko ferietan ibiltzen den ehuleak ez du inongo ehunik salduko Pariseko ehunarekin nahasturik.

Parisen ehule den edonork, bere ehunak saltzeko azoketan dendarik badauka, urtean bost soldata pagatu beharko diskio erregeari azoka-eskubideagatik, duen denda edo saltoki bakoitzagatik".

(BOILEAU, 1210-1270)

Etienne Boileau (1210-1270) erret ofiziala zen, eta Pariseko Prebosteia izan zen, hau da, hiriburu hartarako Erregeek zeukan gobernari eta ordezkaria. Boileau-ri zor diogu "Livre des métiers" deitua, Erdi Aroko gremio-bizitza eta ohiturak ezagutzeko funtsezko obra. Garaiko egoera sozio-ekonomikoaren ezagumendurik onenarekin idatzita dago liburua.

Hemen deskribatzen diren feudalismo-barneko ohitura sozio-ekonomikoak beren testuinguru historikoa emateko, ikus "Historia/1"eko 193-201. orrialdeak, eta berezikiago 194-198. orr.

EGJTEKOAK

- a) Euskal Herriko hirietan bila gremio-ofiziokoek kale bereziak nola banatzen ziren. Begira kale-izenak (Gasteiz, Tolosa, Donostia...)
- b) Egin hiri horietako baten planoak, eta ikasgelan azaldu lagunei.
- c) Bila, entziklopedietan eta irudizko obra historikoetan, Erdi Aroko langile gremialen irudiak.
- d) Champagne-ko Feriak oso garrantzizkoak ziren: Zergatik? Nola adieraziko zenuke hori mapa batean?

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer zen gremioa? Zeintzuk ziren partaideak? Noiz sortu zen?
- b) Zergatik ziren gremio hauek hain arautuak? Zeren alde eta zeren aurka egiten ziren arautegiak?
- c) Nolako abantailak eta eragozpenak zituen gremio-sistemak? Egokia izan al zen produktibitatearen igotzerarako?
- d) Ba al dago interes-lehiaketarik?
- e) Pribilegiotzat hartu al daiteke ofizioa? Bai al du horrek gizarte feudalarekin zerikusirik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

XIII. mend.

Ibilbide luzeko merkatalgo erdiarotarrak hasieran ez zituen behar inbertsio handiak, baina irabazi ugariak inguratzen zituen luxuzko merkatalgoa izan zen. Europara ekartzen ziren produktu garrantzitsuenak metal preziatuak eta espeziak ziren. H. Pirenne-ren testu honetan, XIII. mendeaz geroztiko merkatal aldakuntzak gogoratzen zaizkigu; hain zuzen orduantsu Ekialde-Mendebaldeen arteko harreman horiek areagotu egin ziren, Gurutzadei esker.

"XIII. mende-hasieretatik aurrera, Europa aldera inportatzen diren gauzak hauek izaten dira: arrosa, laranja, abrikotak, pikak, pasak, usaingoak, medizina, tindagarriak, hala nola brasil egurra, Indiatik ekartzen zena, indipikuaren kukumitza edo aluna. Gainera kotoia ere bazegoen, Veneziaarrek 'bonbacinus' eta genovarrek arabierazko 'cotone' izenez deitzen zutena; izen honekin igaro zen gero beste hizkuntza guztietara. Zeta gordina XII. mendearen askenak ezkerreko da komertziala eta izan ere, kotoia bezalaxe, gero eta kantitate handiagotan, industria italiarrak lehenengo eta gero kontinentekoak bi produktuok erabiltzen zituen neurrian. Ekialdeko ehunek, gero Mendebaldean imitatu zirenek, ere beren partea izaten zuten itsasuntzien kargamenduetan, hala nola: Damas-eko damaskinatuek, Bagdad-eko baldakinoek, Mosul-eko muselienek, Gazako gasek eta".

(H. PIRENNE)

H. Pirenne, historilari belgiarra zen (1862-1935). Lucien Febvre eta Marc Bloch-en antzera, historiografia positibista eta politiko-diplomatiketik beste ikusmolde sozio-ekonomiko batera eraman nahi izan zuen historilarien lana. Alde horretatik, "Annales" aldizkariak zabalduetako metodoen aitzindaria da Pirenne. "Les Anciennes Démocraties des Pays-Bas" (1909) eta "Les Villes au Moyen Age" (1927) bezalakoak adibide onak dira, dioguna adierazteko.

Feudalismoaren goreneko garaia "Historia-1" liburuan, 192-194 eta 199. orrialdeetan aurkituko duzu. Begira ongi harreman komertzialei dagozkienak.

EGJTEKOAK

- a) Merkatalgoaren garapena bultzatu zuten kausak bila, eta konparatu merkatal gure nagusiak: Italia, Champagne-ko Feriak eta Hansa.
- b) Seinala itzazu mapan Europako ekonomiaren 13-15. etako arazo garrantzitsuenak: industri eta merkatal gure nagusiak; merkatalgoaren ibilbideak: Hansa-koak, mediterranean eta atlantiarrak, lehor-ibilbideak, ekialdekoak, afrikarrak; ferien kokapena. Bila Atlas historikoren bategan.
- c) Dokumentuko aipamen geografikoak, adieraz mapan.
- d) Aldakuntza sozio-ekonomikoen eragina nabaria izan zen kulturaren eretikoka, mapan, eliza gotikoak eta unibertsitateak.
- e) Garai honetan nolabaiteko indarra hartuko duten kontzeptu hauen esanahia bila: Feria, azoka, protekzionismoa, kapitalismoa, merkantilismoa, txekoa, poliza, kontratua.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zeintzuk dira, Europara inportatzen diren gauzak. Azaldu sailka.
- b) 13. mendearen aurretik eta geroztik, nolako aldakuntzak bereizten dituzu Ekialde-Mendebaldeen arteko merkatal trukaketan?
- c) Nortzuek egin zuten merkatalgo hau Mediterraneoan zehar? Euskaldunek bai ote zuten zerikusirik?
- d) Nolako eragina izan zuen ehungintzan merkatal erlazio berri honek? Arrazoitu erantzuna.
- e) Nolako erlazioa ikusten duzu merkatalgoaren eta hiritartze-prozesuaren edo hiri handien sorreraren artean?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

XIII. mend.

XIII. mendeko heretikoek aurkako pertsegizioaz ari da dokumentu hau. Kristautasunaren hasieratik bertatik hasi ziren heresiak, eta, Elizan benetako doktrinaren desbiderazioak zirenez, Kontzilioetan kondenatzen ziren. Doktrinaren garbitasuna zaintzeko, horretarako Erakundeak sortu ziren, Inkisizioa batipat. Heretikoak, arrisku sozial bezala, bortizki zigortuak izan ziren Erdi Aro kristauan.

"Parrokia bakoitzean apaiz bat edo hiru laiko izendatuko dira heretikoak arretaz bila ditzaten. Susmo txarreko etxeetara joango dira, baster guztiak miatus. Heretikorik edo hauen babeslerik aurkitzen badute, behar diren neurri guztiak hartuko dituzte aldegin ez dezaten, eta leku hartako gotzainaren eta jaunaren aurrean salatuko dituzte.

Heretiko bat aurkitzen deneko etxea suntsitua izango da. Inor ez da heretiko bezala kastigatua izango, aurrena eliz auzitegi batek juzgatua izan gabe.

Okerra beren kabuz zapuzten duten heretiko guztiak bina gurutze eramango dituzte, ondo ikusteko moduan. Ez zaie kargu publikorik emango eta legezko ekitaldietara ere ez dira ametituak izango, nola eta Aita Santuak erabat lehengo eskubideak itzultzen ez dizkien.

Hurrenez hurren hamalau eta hamabi urte baino gehiago dituen edozein gizon-emakumek heresia oro behar du ukatu. Berebat zin egingo du, fede katolikoa gordeko duela, eta heretikoak bere ahilaren neurrian pertsegituko eta salatuko dituela.

Urtean hirutan egingo dute denek aitortu eta jaunartu. Hau egingen ez duena heresi susmopeko izango da".

(TOLOSAKO KONTZILIO BATEK, XIII. mend.)

Kontzilioen zeregin nagusietako bat kristau-sineskizunaren garbitasuna eta fede-altxorra gordetzea izan da. Kontzilio orokor ekumenikoen ondoan, eskualde eta probintziatakoak ere bildu izan dira, horretarako: batipat lekuan lekuko disziplina-arazoak begiratzen zituzten azken hauek.

"Historia/1"ean ikus ditzakezu albiste osagarriak: ik. 205-208.
"Mendez Mende. Aro Modernoa"n ere badago borroka erlijiosoei buruzko hainbat berri "Europaren ezinegonak: Erreforma" kapituluan, 234-288. orr. Baina tolerantziari buruzkoak interes bereziagoa du hemen: ik. 284-288. orr.

EGJTEKOAK

- a) Seinala ezazu Frantziako mapa batean Tolosako Konterria.
- b) Aipa, Historian zehar garatutako heresia garrantzitsuen izenak, bakoitzaren mezua adieraziz: Gnostizismoa, Arrianismoa, Monofisismoa, Katarismoa... Zein Kontziliotan izan ziren kondenatuak?
- c) Mapa batean emango al zenituzke Okzitaniako kataroen mugimenduaren eta beronen kontrako gertakarien berri?

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer zen, eta noiz eta non zabaldu zen heresia albitarra edo kataroa?
- b) Zer zioen heresia kataroak? Inozentzio 3.ak zergatik hasi zuen haien aurkako pertsegizioa? Zer izan zen albitarren aurkako gurutzada?
- c) Zer zen Inkisizioa? Zertarako sortua zen?
- d) Zer dira Elizaren historian Kontzilio Ekumenikoak? Norak dei egiten du berrietara? Zertarako?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1348-1350

Testu historiko-literario hau, XIV. mendean Europa zitalki zigortu zuen Izurrite Beltzaz ari da. Izurrite hura, Erdi Aroko demografiaren garapenean benetako bihurtzea izan zen, gora zetorren biztanleriak geldialdi larria jasan bait zuen haren ondorioz. Ezbehar hartaz garaikoek zituzten interpretazioak ematen ditu hemen Boccaccio-k.

"Eta halaxe diot, ezen gizonentzat salbagarriro Jainkoaren Semea gizon egin zenetik urteak 1348ra iritsi zirenean, Florentzian, Italiako hiri guztietan ederrenetakoa den hartan, heriotzazko izurrite bat sortu zela, goi-gorputzen eraginez edo gure egite gaiztoen kausaz (...).

Gaixotasuna sendatzeko badirudi ez zutela balio ez medikuen esanek eta ez inolako botikek (...).

Eta hala, gutxi siren sendatsen zirenak, eta ia denak, aipatu seinaleak agertu eta hiru egunera, edo lehentxeago edo geroxeago, inolako sukarrrik edo bestelako gorabeherarik gabe, hil egiten ziren (...).

Batzuek, sentimendu krudelagoekin esaten zuten (hori segurua goa balits bezala), gaitzaren kontra ez zegoela botika hoberik hartatik aldegitia baino; eta uste honek eraginda, beren buruaz bestetan pentsatu gabe, hiria utzi eta aldegin zuen gizon-emakume askok (...).

Herriska eta lurralde sakabanatuetan, nekazari pobre eta errukarriak, beren familiekin, medikuen zerbitzurik eta zerbitzariaren laguntzarik gabe, nolana hiltzen ziren, gaur zein egunez, beren etxe, bide eta soroetan, animaliak bezala gizonen antzera baino areago (...).

Askenik, landaldea utzi eta hirira itzuliz, zer esan daiteke gehiago, espada hain izan zela handia eta gogorra Zeruaen eta,agian, gizonen krudeltasuna, ze uste bait da, martxotik hurrengo ustailera bitartean, ehun mila gizakume baino gehiago galdu zirela Florentziako hiriaren murrubarruan, alde batetik sanoek sentitsen zuten beldurra zela bide, gaizki serbituak eta beren premietan abandonaturik zeuden gaitxoak asko zirelako".

(G. BOCCACCIO, 1348-1650)

B. Giovanni Boccaccio florentziarrak (1313-1375) bere mendean deskribapenik irakurgarrietakoa eskaini digu. Literatur gizona izanik ere, balio historiko baliagarriak eskaintzen ditu, belaunaldi haren lekuko bezala: kultura burges italiarraren testigua da guretzat. Italiara ezezik, grekoa eta latina ere menperatzen zituen. Boccaccioren obra maisua "Decameron" da (1350-1353).

XIV. mendeko krisiaz baduzu albisterik "Historia/1"eko orrialdeetan: ikus lehenik 201-203. orr. Entziklopedia eta Literatur historietan aurki ditzakezu xehetasun gehiago, Boccaccio-ri buruz.

EGJTEKOAK

- a) Egizu Italiaren 14. mendeko mapa bat: nola zegoen banatuta Italia?
- b) Bila entziklopedietan Izurrite Beltzari buruzko argibide gehiago, eta idazlan labur batean deskriba nola gertatu zen hura.
- c) Egin, ahal baduzu, entziklopediaren batetik, Erdi Aroko izurrite handienen ardatz kronologiko bat.
- d) Adieraz, mapa batean, Izurrite Beltza (1348-1350) nondik nora zabaldu zen.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik izan du Decameron liburuak halako garrantzia?
- b) Dakizunetz, ipuin-bilduma bat da Decameron: zein argumentu-hari du bildumak, ipuinak elkarrekin lotzeko?
- c) Zeintzuk dira testu honetako ideiarik garrantzitsuenak?
- d) Zeintzuk izan ziren Izurrite honen ondoriozko larrienak: Gizartean, ekonomian, politikan eta kulturean?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

V-XVI. mend.

Erdi Aroaz dihardu Le Goff-ek pasarte honetan. Interpretazio desberdinak eman dira Aro hain luze honetaz; horregatik, beharbada ezin da topa homogenotasunik. Hala ere, testuak aipatzen duen "hazkunde jarraituan" lekutu beharko lirateke Aro oso-ko gorabeherak.

"Elkarren segidan ondozkutzen dira ernazimentuak Erdi Aro honetan. Historilariak irakurtzean badirudi 'tarteko' aro honek mende bakoitzean hartzen duela bultzada berri bat, aurrena, iraganaldiko antzinako mundu grekoerromatarraren distira berreskuratzeko eta, gero, gaina hartu eta eklipsatzeko, XV. eta XVI. mendeetako Ernazimentu handian. Aspaldidanik kokatu zuten historilariak ernazimentu intelektual bat XII. mendean; gero, XI. mendean bilatu ziren horren oinarri materialak; hurrena, X. mendean eta gaur egun, berri, IX. mendeko ernazimentu karolingiarra baino haruntzago jartzen dira demografi gorakada eta sabalkuntza landatarra, hau da, zenbait aurre-ernazimentu VIII. mendeko loraldi karolingiarra jada iragartzzen zutenean alegia.

Eskolastika-usaina ere baduten saioaldiak alde batera utziz, errealitateak iradokitzen duena aurrerapen jarraitu bat da, eta hazkunde jarraitua; eta, honen barnean, XII. mende-erdia areago da azelerazio-puntu abiapuntu baino: bigarren bultzada bat, alegia, gaur esan ohi den bezala".

(J. LE GOFF, 1977)

Jacques Le Goff historilari frantsesa da (Toulon, 1924), Mendebaldeko Erdi Aroko antropologia historikoan espezializatua. Pariseko Goren Ikasketa-Eskola Praktikoan zuzendaria izan da; baina lehenago Praga, Oxford eta Erroman egin zituen ikasketak eta ikerlanak, ondoren Lille-n irakasteko. Erdiarolaria da, eta "Annales" deitu taldekoa.

Kontsulta itzazu "Historia/1" liburuko orrialde hauek 157-159, 164-, 165-166, 173 eta 205-214. "Artearen Historia/1"ean ere badago berririk franko, ik. batez ere 172-174 eta 200-202. orr.

EGITEKOAK

- a) Pasarte honetako ideia garrantzitsuenak jaso, eskema batean, edo ardatz kronologiko batean eman.
- b) Agirian aipatzen diren mendeetako kultur azalpen batzuk bila, eta egin Erdi Aroaren sintesia izango den muntaia.
- c) Ennazimentu karolingiarrari buruzko informazioa bila.
- d) Erdi Aroaren epekapena: Nola eta zergatik banatzen dira Goiz Erdi Aroa eta Berant Erdi Aroa? Eman horren datu argigarriak sinopsi batean.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zer uler daiteke Ennazimentu kontzeptuaz?
- b) Zergatik esan da Erdi Aroa "tarteko" aro dela?
- c) Erdi Aroaren bilakaeran bi une eraginkor aipatzen dira testuan: Zeintzuk dira?
- d) Zertan datza Ennazimentu karolingiarra? Nolako ikasketak eta non ematen ziren?
- e) Nola deskribatuko zenuke Erdi Aroko Elizaren zeregin kulturala?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

XIII. mend.

Alfontso Jakitunaren Partidetatik hartuta dago testu hau. Arabiarrek Ekialdetik eta kristauak gero Gurutzadekin, ekarritakoek lehen Ernazimentu intelektual bat piztu zuten Europan. Bestalde, garaiko hazkunde demografikoarekin batera, hiria gizarteko gune sozio-ekonomiko bihurtu zen. Horren fruitu izan ziren Unibertsitateak.

"I. Legea: Estudioa zer den eta zenbat estudio-modu dauden eta nork aginduta egin behar diren.

Estudioa da, maisuak eta ikasleak nonbait elkartzea, jakintzak ikasteko borondate eta asmoarekin; eta bi estudio-modu daude: bata da estudio jenerala deitzen dutena; hor egoten dira maisu, arteetakoak, eta gramatikakoak, eta logikakoak, eta erretorikakoak eta aritmetikakoak, eta geometriakoak eta musika eta astronomiakoak eta baita dekretuetako maisuak eta legeetako jaunak ere: eta estudio hau Aita Santuaren, edo Enperadoreren edo Erregeren mandatus jarri ohi da.

Bigarrena da estudio partikularra deitzen dutena, eta maisu batek hiriren batean ikasle gutxi batzuei aparte irakasten dienean eratzten da; eta hau egiteko lekuren bateko prelatu edo kontzejuren batek agindu dezake".

(ALFONTSO X.a JAKITUNA: II. Partida, XXXI. Titulua)

Alfontso Jakituna (1221-1284) Toledon jaio zen, eta Sevillan hil. Gaztela-Leon Erresumako erregea izan zen. Erreinuaren antolamendu politikoan ez zuen parte handirik izan; baina Espainiako Historian ahaztu ezinezko kultur betekizuna izan zuen: bera izan zen, adibidez, gaztelaniatzko prosaren sortzailea eta Histori zientziaren berritzailea. Eta zientzietan eta zuzenbidean gidaritza gotorra izan zuen.

"Historia/1" liburuan, 208. orrialdean, bilatuko duzu berri gehiago. Orokorki, kontsulta itzazu 192-201 eta 205-207 orrialdeetakoak ere.

EGJTEKOAK

- a) Europako mapa batean, adieraz 13. mendeko Unibertsitateak. Penintsula Iberiarrean, ik. nola banatzen ziren orduko Unibertsitateak eta gaur egunekoak.
- b) Konpara dokumentuan agertzen den ikasketen banaketa eta gaur eguneko Unibertsitateetakoak.
- c) Landu eta esplikatu ezazu eskema hau: **Goiz Erdi Aroa:** Feudoa, Monaste-giak, Irakaskuntzaren monopolioa, Zientifikotasun gabea, Teologia nagusi. **Berant Erdi Aroa:** Hiria, Unibertsitateak, Goi-ikasketa eta ikerketak Elizarengandik aldentzen, Pentsomendu-zientifikotasunaren atarian.
- d) Unibertsitateek metodo eskolastiko hau jarraitzen zuten: 1) **lectio**, testu batean irakurketa, 2) **quaestio**, irakurritako testuan azaltzen den problemaren baten planteamendua, 3) **disputatio**, planteatutako arazoaren eztabaida, e) **determinatio**, eztabaidatutakoaren erabakia. Froga ezazu metodo hau agiri honetan.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nola laburtuko zenuke agiriaren edukina.
- b) Noiz eta non sortu ziren Unibertsitateak? Nola antolatzen ziren? Nolako karguak zeuden bertan?
- c) Zer dira Partidak?
- d) Zeintzuk ziren estudiorako behar ziren baldintzak? Nolako estudio-motak zeuden, eta nola eratu ziren?
- e) Zein izan zen Unibertsitateko hizkuntzarik eta ikasketarik nagusiena? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

X-XIII. mend.

Kultura eta artea gizarte baten estruktura sozio-ekonomikoaren ondorio edo isladapena dira, oro har. Erdi Aroan ere, estilo artistikoak hedatu eta unibertsalizatu egin ziren, baina herrialde bakoitzean bertako tradizio, izaera eta estetika propioen arabera garatuko dira. Bestalde, arte-formen eboluzioan ere berrikuntzen ondoan segidatasun historikoak egon ohi dira, eta erromanikoaren eta gotikoaren artean kontrasteak bezala kidetasunak aurki daitezke.

"Arte erromanikoaren eta gotikoaren artean, kultura monastikoaren eta hiritarraren arteko aurkatasun bera jarri nahi izan da, eta garai beretsuan lekutu nahi izan da, gainera, batak bestea trukatu zuten unea, hau da, XII. mendearen erdialdean. Gainera, Erwin Panofsky-k seinalatu duenez (eta XIII. mendean ere aurki daitezke hau), sakonak dira Eskolastika gotikoarekin lotzen duten loturak, zeren eta bietan ageri bait da ordena bera, metodo bera eta izpiritu 'zientifiko' bera nagusi. Ez da ahaztu behar, hala ere, arte erromanikoa bere egitate asko eta askotan (handiguri eta akabatuenetan hain zuzen), arte inperial eta arte monastiko besala agertu zen arren (Rhin-aldeko katedralak handiak eta Cluny III.eko eliza dira horren adierazki), landa-munduan hainbat sabaldu zela hiri-munduan ere.

Alderantziz, berriz, hasieran batipat, arte gotikoa erromanikoaren oparotasunaren aurrean sobrietatesko artetzat jo zitekeen. Asko da gogoratzea San Bernardok Cluny-ko arte erromanikoaren kontra botatako erasoak. Zistertar arkitekturak osatzen du probintziarik jatorrenetako bat arkitektura gotikoaren barruan. Eta hau halako neurrian, ze Italian bertan, (gotikoak erresistentzia gogorak eta eraldakuntza sakonak jasan behar izan zituen hartan ere) zistertar monastegietako elizak edo zistertar eraginez markatutakoak bait dira eredu klasikoarekin adostasunik handiena ageri duten tipoak: hala nola Fossanova zistertarra, 1187an hasi eta 1208an sagaratu; Casamari, 1207an fundatua; San Galgano, 1224etik hara jaso, eta beranduago Eskeko Ordenen elizak, Zisterrak lagatako tradizio gotikoa hartzen dutenak". (J. LE GOFF, 1977)

Jacques Le Goff historilari frantsesa da (Toulon, 1924), Mendebaldeko Erdi Aroko antropologia historikoan espezializatua. Pariseko Goren Ikasketa-Eskola Praktikoan zuzendaria izan da; baina lehenago Praga, Oxford eta Erroman egin zituen ikasketak eta ikerlanak, ondoren Lille-n irakasteko. Erdiarolaria da, eta "Annales" deitu taldekoa.

"Historia/1" liburuko 17. kapitulua ikus dezakezu, hemengoak osatzeko: ikus 205-214. orr. "Artearen Historia/1"ean ere baduzu jakingarri-rik: bereziki konpara 172-174 eta 200-202. orrialdeetan esaten direna.

EGJTEKOAK

- Arte erromanikoa ikertzeko testulibururen bat kontsultatu beharko duzu, eta bertako elizaren bat aztertuz egin ariketa hauek: 1) Marraz koadernoan liburuko eliza erromanikoaren oinplanoa. 2) Marraz portada eta leiho bat.
- Mapa batean adieraz erromanikoaren hedapena eta erromes-bideak. Bai al dute hedapen hark eta bide horrek elkarrekin zerikusirik.
- Saia zaitetz arte gotikorearen esanahia eta sorrera, eta hedapenaren kausak ikertzen, eta eman lauki batean.
- Arte gotikorearen ezaugarriak marraz, eta arte erromanikorearekin alde-ra.
- Europaren mapa batean seinala eraikuntza gotiko garrantzitsuenak.

ERANTZUTIKOAK

- Non garatu ziren eta nolakoak ziren kultura monastikoa eta kultura hiritarra? Zertan datza autoreak aipatutako aurkatasuna?
- Zer da eskolastika?
- Zein da testuan aipatzen den "ordena bera, metodo bera eta izpiritu 'zientifiko' bera" hori?
- Zer esan nahi da erromanikoa gizarte feudalaren lehen eredu dela esatean? Eta erromanikoa arte didaktikoa dela esatean, zer adierazi nahi da? Gotikoaz ari dela, burges, hiritar eta merkatal arte bat dela esaten da. Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.